

# ttipi-ttapa

276. zenbakia • 2000ko apirilak 20 • XX. urtea



**4 Erreportaia:**  
**Isidoro FAGOAGA**  
Milango Scala antzoki famatuan hameka urte eman zituen tenore beratarrak. Gernikako bonbardaketaren ondotik egin zuen salaketak isilararazi zuen kantaria eta idazleari bidea ireki zion. Berako Musika Eskolari izena ematen dion pertsonaia ezagutuko dugu.

**3 Telefono Gida 2000:**  
Eskualdeko komertzioak ez ezik, eskualdeko partikularren telefono guziak eskura izanzen dituzu aurtengo Gidarekin.

**6 Iritzia:**  
Ginekologia zentrua jarriko omen dute Beran Gaur egun eskualdean Elizondokoa da emakumeek eskualdean duten ginekologi zentro publiko bakarra. Laster, ordea, Beran ere zabalduko da bertze bat.

**28 Kirola:**  
Jon Bru  
Denboraldi hasera bikaina egin du Banesto taldean ari den txirrindulari beratarrak. Heldu den urtean profesionaletan egon nahi du.

**33 TTAPI TXARTELA:** Orain txartela izateak abantaila gehiago ditu. Erosi zeurea eta erabili.




## Euskal Herriko Txirrindulari Itzulia

# Munduko onenek ikusmina sortu zuten

Apirilaren 6an ailegatu zen Euskal Herriko Txirrindularitza Itzulia gure eskualdera. Azkeneko 50 kilometroak Malerrekan barrena egin ondotik (tartean Saldiasko gaina igan zuten), Donezteben akitu zen

Gasteizen abiatutako etapa nagusia. Once taldeko Laurent Jalabert txirrindulari famatua izan zen azkarrena sprintean. Biharamonean erabakitzen zen Itzulia eta goizean abiatu ziren txirrindulariak Do-

neztebetik Azkoiti aldera. Ikusmin haundia piztu zuten kirolariek, normalean telebistatik ikusten diren izarrak ikusi, argazkiak atera eta autografoak eskatzeko aukera izan baitzen.



Jende aunitz bildu zen Donezteben Jalabertek irabazitako etapa akabaila eta biharamoneko irteera ikustera.

# Ezkon gaien

# FERRIA

BIDASOA  
2000

# Novios

Etxalarko Bentan agertu zineten guzieri,

## MILA ESKER

Heldu den urtean ilusio eta idea berriekin  
berriz ere zuen zain egonen gara

PARTE HARTZAILEAK:

JECA, M<sup>a</sup> NIEVES, ZINNIA, YOAN, MALDAERREKA, BORTZIRUDI, ZALDUA,  
OSTIZ, SEGURA VIUDAS, KULTURKARI, BODEGAS IRACHE ETA ETXALARKO BENTA

					
<p><b>NOIZ:</b> Maiatzaren 3tik 17 artio Astelehen eta asteazkenetan Izen emateko epea: maiatzaren 2 artio</p>			<p><b>BAZTAN-BIDASOAKO EUSKALTZALEEN II. TOPAKETAK</b></p>		
<p>Matrikula: <b>doan</b> Lekua: Doneztebeko Juansenea etxean</p>		<p>informazioa: BAZTAN 948 58 00 06 948 58 10 07 BORTZIRIAK 948 63 40 05 MALERREKA 948 45 17 46</p>			
	<p><b>ANTOLAZAILEAK</b> Baztango, Bortzirietako eta Malerrekako euskara zerbitzuak</p> <p>LAGUNTZAILEA:</p>				



# Aurten bi telefono gida batean

- Beti bezala, eskualdeko komertzioak biltzen dira Gida Komertzialean
- Berrikuntza gisara, aurten partikularren telefono guziak ere agertzen dira

**A**urten ere Telefono Gida argitaratu du TTPI-TTAPA FUNDAZIOAK.

Normalean baino beranduago banatu da etxe etxe, izan ere hobekuntza nabarmena izanendu 2000ko Telefono Gidak. Orain arte Baztan, Bortzirriak, Bertizarana, Leitzalde, Malerreka eta Saraldeko merkatal-etxe, lantegi eta bertze hainbat zerbitzuen berri ematen zuen Gidak. Aurten pausu bat aitzinera jo nahi izan du Gidak erabiltzaileei ahalik eta zerbitzurik onena eskaini nahian

eta eskualde horietako partikularren telefonoak ere agertuko dira. Lerro hauen bitartez, bi Gidak zuzen erabiltzeko aholkuak eta Gida egiterakoan erabilitako irizpideen berri ematen dizuegu.

Gida Komertziala...

Gida Komertzialak azken urteotako ildoari eusten dio. Erabiltzeko aski errexeda, eta praktikoa gainera. Informazioa errexago kontsultatu eta bilatu ahal izateko, aktibidade ezberdinak alfabetoa segituz ordenatuak daude.

Gerta liteke terminologia komertziala zail edo arrotz egiten zaizula, izan ere ohi-

tuagoak baikaude kasu horietan erdarak erabiltzera. Horretarako soluzioa eskaintzen du Gidak, haserako orrialdeetan, lagungarri gisa ezarritako Gaztelera-euskara eta frantsesa-euskara hiztegitxo ilaburren bidez.

Argitalpen honetan zerbitzu eta produktu guziak euren izen bereziaz ezartzea luzezia izanen zenez, horietako batzuk "sarre-izen" zabalago batean sartuak agertuko dira. Errate baterako, Erretegiak Jatetxeetan sartuak daude.

Joan den urtean bezala, anuntzioa jarri duten komertzio eta zerbitzuen zerrenda sartu dugu atzeko orrialdeetan. Merkatal-zerbitzu hoiek alfabetikoki ordenatuak daude izenaren arabera eta bere anuntzioa ageri den orrialde zerbakia dute ondoan. Beraz, hoi-telefonoa edo helbidea bilatzea aski gauza ximplea da.

... eta Partikularren Gida berria

Arestian aipatu dugun bezala, telefono partikularren gida izanen da aurtengo Gidaren berrikuntza eta hobekuntza nagusia. Gida hau ere herriz herri antolatua dago. Dena den, Telefonikak argitaratzen duen listinarekin ohituak gaudenez, aldaketa bat edo bertze izanen da TTPI-TTAPAREN Gida honetan.

Errate baterako, abizen edo deituretan or-



**Merkatal-etxe, lantegi eta bertze zerbitzuen berri ematen du Gida Komertzialak.**

tografia ofiziala erabili da, Espainiako Justizia Ministerioa, Eusko Jaurlaritzaren eta Euskal Deituren Izendegia izeneko liburuan argitaratua: (Justizia Ministerioa, Eusko Jaurlaritzaren & Euskaltzaindia, 1998, Euskal Deituren Izendegia, Madril: Imprenta Nacional del Boletín Oficial del Estado)

Irizpide horren arabera, Dagerre deitura Agerre idatzi da, Daintziburu berriz Aintziburu...

Heldu den urterako berrikuntzak

Heldu den urteko Telefono Gidan telefonoaren titularrak ez di-

ren pertsonen izenak ere sartzen ahal izanen dituzu. Aurten, bakar-bakarrik titularren izenak sartu ditugu. Horregatik, gerta daiteke guk bilatu nahi dugun izena ez topatzea (emaztea, seme-alabak), telefonoaren titularra bertze bat delakoz. Egoera hori moldatzeko aukera izanen da heldu den urteko Gidan. Horretarako, 948 631188 telefonora deitu behar da eta sartu nahi den izena adierazi.

Modu berean, gaur egun gero eta gehiago erabiltzen diren saketako telefonoen zenbakiak ere sartzeko aukera ireki nahi da heldu den urteko Telefono Gidan.



**Eskualdeko telefono guziak ageri dira Gida 2000 liburuxkaren bigarren zatian.**

## RO FAGOAGA

ikako

nbek isilarazi

ten tenorea

*niarrek Francoren aginduz Gernika bonbardatu zutenetik 63 urte beteko dira apirilaren 23an. 63 urte beteko dira, halaber, Isidoro Fagoaga, gerra zibila baino lehenagoko euskal tenorerik ospetsuenak kantatzeari utzi zionetik. Izan ere, bertara beltz harek eman zion akabera beratar honen karrera izugarriari. Italiako opera garrantzitsuenetan gailurra lortu ondotik, partiturak alde batera utzi eta literaturan hasi zuturubelarri. Abeslari eta euskaltzale handi honen jantzia interesgarria, hurrengo lerroetan.*

TESTUA ETA ARGAZKIA: ASIER GOGORTZA

erako eskolako koruan hasi zen kantatzen Isidoro Fagoaga, baina diotenez, lehenbizian ez omen zen bertzeen arbarmentzen. Aita oparitu zion bere lehen liburuxka,

ek hagitz pertsoela errankatu dutzerik ez zituela, bidatzi zion hara z, eta honek itsali zizkion postaz. ikasten hasi zen aiz.

o Constantino teledia aditu eta beztizaion. Pentsatu aratarira agertu eta gelditu zen. Constantino ruffo opera kantain ailetu zen etxezian ez zioten kantatzen beratarriari, non-tuzten gau hortarako.

Dena den, Isidororen burugogorkeriarren aitzinean etsita, zekiena kantatzeko eskatu zioten azkenean. Ruffo eta Constantino erabat harriturik gelditu ziren bere ahotsarekin, eta gomendio gutun bat eman zioten Italiara ikastera joateko. Harat abiatu zen gure Isidoro, baina Parmako kontserbatorioran denbora gutti eman zuen, lehen mundu gerrak harrapatu eta Euskal Herrira itzuli behar izan baitzuen. Hura izan zen gerrarekin izan zuen lehen hartuemana.

27 urterekin debutatu zuen

Berara itzulita, barojatarrak ezagutu zituen, eta batez ere Ricardo Baroja pintorearekin adiskidetu zen. Honek, Nafarroako Diputaziora bidali zuen beka baten eske, Isidorok ez baitzuen musikarekin segitzeko baliabiderik. Diputazioak eman zion sotsarekin Madrilerara joan zen musika ikasketak akautzera, eta azkenik, 1921. urtean, operan debutatu zuen Fagoagak. 27 urte zituen «Sansón y Dalila» opera abestu zuenean.

Beranduago, bere ahotsak Guridi zuzendari ospetsua sorgindu zuen, eta «Amaia» bere opera ezagunena Bilbon estreinatzeko deitu zuen beratarra. Geroztik Gernikan, Madrilen eta Buenos Airesen aritu zen kantuaran Guridirekin.

Isidoro Fagoaga gaztea, Italiako Scala antzokian Anna Karenine obra interpretatu zuenean.



Isidoro Sigfrido Wagnerrekin, Richard Wagner konpositore handiaren semearekin.

Italiara itzulita, Richard Wagnerren “Walkiria” obra ezaguna abesteko hartu zuten, aitzineko tenoreak porrot egin baitzuen Napolesko ikusleagoaren aitzinean. Hasieratik arras ongi hartu zuen Italiako kritikak, eta Toscanini maixuaren aginduz, Milango Scalan kontratatu zuten gero. Han aritu zen 11 denboralditan, Richard Wagner konpositore handiaren pertsonaia nagusiak interpretatuz, Sigfrido Wagner, aitzinekoaren semea, Toscanini bera eta bertze maixu batzuen zuzendaritzapean.

Wagner interpretatzen maixua

Batez ere Wagnerren operak abestegatik egin zen ezaguna, bere gustokoenak eta bere ezaugarriei hobekien egokitzen zirenak hoiexek baitziren. Ttikitan artritisa izan zuen, eta horren ondorioz bere ahotsak bazituen muga batzuk. Wagnerren musikak ez zituen muga hoiiek gainditzen, eta hori izan zen bere obra aukeratzeko arrazoi nagusia.

Dena den, Fagoagak bertze hainbat operatan ere hartu zuen parte. Bere izena Pertile, Rosa Raisa, Merli eta sona handiko bertze abeslarien ondoan agertu zen


Italiako operetako karteletan. Aipatzekoa da, bidenabar, kantari atzerritarren artean gehien irabazten zuenetakoa zela: hilean 160.000 pezeta (6.400 libera) inguru ateratzen zituen, eta pentsa hori zer nolako dirutza zen 1930. urte aldera.

Gailurretik klandestinitatera

Fagoagaren arrakasta Gernikako bonbardaketaren egunean bertan akautu zen. Sarraskia italiarrek egina zutela zabaldu zen lehen momentuan, eta Isidoro amorrubizian sartu zen Scalan, italiarrak basati hutsak zirela oihukatzen. Mussoliniren aurka bota zituenak garesti ordaindu zituen, baina ez zen sekulan damutu.

Garai haietan Wagnerren musika nazismoaren sinbolotzat hartua izan zen, eta diotenez, Fagoagak uko egin zion haren obrak interpretatzeari. Faszisten kontrako jarrera publikoki erakusteagatik bere disko, liburu eta partitura guziak erre zizkioten. Hortxe akautu zen tenore handi honen ibilbidea.

Hala ere, ezbehar honek bertze ate batzuk ireki zizkion. Musikaz aparte bere zaletasun handiena zena jorratzen hasi zen burubelarri: irakurri eta idazten. ■



## Opera gizona, idazle bihurtua

1936an, gerra puri-puritan zela, etxera itzultzea pentsaezina zen Isidororentzat, eta bertze aunitzek bezala Ipar Euskal Herrian aurkitu zuen babesa. Hor ezagutu zituen Barandiaran eta bertze intelektual euskaldun aunitz. Donibane Lohitzunetik Buenos Airesera bidaiatu zuen geroago, eta “Gernika” aldizkarian agertu zituen bere lanak. Gainera, “Eusko Jakintza”ko kolaboratzaile nagusienetakoa izandu zen mende erdialdera.

Artikulu guzi hoietaz gain, zenbait liburu eta saiakera argitaratu zituen Fagoagak. Espainolez idazten bazuen ere lantzen zituen gai gehientsuenak euskal pertsonaiei buruzkoak ziren. Bere libururik ezagunenak hauxek dira: “Pedro Garat, el Orfeo de Francia” (1948an idatzia), “Domingo Garat, el defensor del Biltzar” (1951koa eta gero Yon Etxaidek euskaratu zuena), “Los poetas y el país vasco”, eta “El teatro por dentro” eta “Unamuno a orillas del Bidasoa y otros ensayos”.

1976ko martxoaren 16an zendu zen Donostian, 83 urte zituela, eta Beran eman zioten lurra, gizon handi hau sortu eta hazi zen herrian.



✍ Ricardo FAGOAGA *Isidoro Fagoagaren iloba*

## «Mutiko koxkorak ginelarik euskarazko liburuak partitzen zizkigun eskolapiotan»

**Ze oroitzapen duzu zure osaba zenaz?**

Bueno, nik ez nuen aunitz ezagutu, egia erran. Denbora haietan harek bazuen bertze kategoria bat gure aldean, gizon ikasia zen, senideetan gehiena.

**Gazte gazterik aldegin zuen herritik, ezta?**

Bai, Argentinara. Han koro batean hasi zen kantatzen. Berak erraten zuenez behinpen baten bat oharatu zen boza polita zuela eta bereixi zuten.

**Halere gehienbat Italia aldean egin zen ezaguna.**

Bai, operan. Gero gerra zelarikan etorri zen hunat,

36an, eta bi puska egin zuten! Hor akautu zen bere operako karrera, baina eskribitzen hasi zen.

Ni oroitzen naiz mutiko koxkorak ginelarik, Berako eskolapiotan, nola euskarazko liburu tiki batzuk partitzen zizkigun, berak eskribituak.

LEGE GORDAILUA: NA-1324/85

FRANKEO ITUNDUA: 34/79

TIRADA: 7.100 ALE

### Helbidea:

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA

Herriko Etxeko Plaza, 1

E-31780 BERA (Nafarroa)

Tfnoa: (+34) 948 63 11 88

Faxa: (+34) 948 63 12 91

### Internet:

<http://www.topagunea.com/ttapi-ttapa>

### e-mail:

[ttapi-ttapa@topagunea.com](mailto:ttapi-ttapa@topagunea.com)

**Jabea:** TTIPI-TTAPA FUNDAZIOA.

**Presidentea:** Pello Apezetxea.

**Kudeatzailea:** Joxemanuel Irigoien.

**Zuzendaria:** Aitor Arozena.

**Publizitatea:** Kulturkari, S.L.

**Administrazioa:** Amaia Goia.

**Erredakzioa:** Aitor Arozena,

Asier Gogortza.

**Berriemaileak:** Joseba Azpiroz,

Esteban Arozena,

Juana Mari Saizar,

Iban Isasi,

Patxi Iriarte,

Patxi Otxandorena,

Jaione Otxandorena,

Alba Fernandez,

Lorena Galarregi,

Pablo Mendiburu,

Franck Dolosor,

Margari Etxenike,

Koro Irazoki,

Ana Mari Etxeberri,

Frederick Berruet,

Elixabet Iturria,

Garbiñe Maiz,

Oskar Txopereña,

Pello Apezetxea,

Aitor Gogortza.

**Kolaboratzaileak:** EHNE Nafarroa,

Mikel Bezunartea,

Belarra...

**Inprimategia:** Gertu.

**Erakunde Laguntzaileak:** Bera, Leitza,

Goizueta, Arano, Areso, Baztan,

Urdazubi eta Sarako udalak,

Bortzirietako Euskara

Mankomunitatea, Malerrekako

Zerbitzu Mankomunitatea...

### Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria . . . .2.200 Pta.

Ipar Euskal Herria . . . .160 Libera

Europa . . . . .4.000 Pta.

Amerika . . . . .16.000 Pta.



Aldizkari honek Nafarroako  
Gobernuaren laguntza jaso du

## GAURKOTASUNeko GAIA

### Ginekologia kontsulta jarriko omen dute Bortzirietan

Jarriko dutela erran digute telefonotik, baina data zehatza jakitea falta zaigu



Blanki ETXEBERRIA  
Uxua Emakume Taldea

Hemendik Elizondoko zentzurajoateko problema handiak genituen

emakume aunitzek. Nik martxoaren 20an bertan kontsulta nuen ginekologoarekin, eta lagun batekin joan behar izan nuen kotxean. Bortzirietan kontsulta bat jartzeko nahiko emakume garelarikusirik, eskaera egitea pentsatu genuen. Elizondokoei aipatu genien, eta haiek Iruñeko Osasun Zerbitzura joateko erran ziguten.

Iruñeara joan ginenean, egia erran, ez ziguten argibide handirik eman, eta eskaera hori Herrikoetxeak egin behar zuela erran ziguten. Hortaz, Udaltzatan aurkeztu genuen arazoa eta denak ados ziren gurekin. Egin beharreko eskaera egiteko ardur hartu zuten gainera. Ondotik, apirilaren 5ean telefonoan izan nuen Iruñeko Osasun Zerbitzuko. Harek erran zidan gure eskaera onartua zutela.

Lehenbiziko pausua emana dago eta uste dugu onerako dela. Orain falta zaigu tokia eta data zehatza jakitea. Pentsatzen dut oraingo Osasun Etxean jarriko dutela kontsulta. Gu esperoan gaude ea zerbait gehiago erraten diguten.

Haurdun zaudenean ez da momenturik atseginean bidaia luzeak egiteko



Axun MAIA  
Etxalar

Positiboan iduritzen zait kontsulta Bortzirietan jartzea, eta ez baka-

rrik positiboan, arront beharrezkoa ere bai. Ez dut inongo konparaziotan sartu nahi, baina Baztanen baldin badago ginekologia zerbitzu bat, bortz herriak biztanle kopuruaz Baztan adinakoa bada. Orain arte Baztanera edo Gipuzkoara jo beharra genuen, baino behinpin mugitu egin behar duzu.

Nik orain 9 urte lehen semea izan nuenean, Donostiara joan nintzen, baina bigarrena izan nuenean Elizondora joan nintzen, hagitz erreferentzia onak bainituen hango zentruaz eta pertsonalaz. Baina azkenean guretzat Elizondora joan edo Donostiara joan ia-ia berdina da, aunitz mugitzea da. Nik kotxea badut baina desplazamendu kokorra da eta haurdun zaudenean ere ez da momenturik atseginean bidaia luzeak egiteko. Dena den, zerbitzu publikoak ordaintzen baditugu eskubidea dugu hoiek ahalik eta hurbilen hartzeko. Arront beharrezkotzat jotzen dut inguruan ginekologia zerbitzua hartu ahal izatea.

Neretzat berri ona da Beran jartzea, puska hurbilago dago eta




Mª Josefa ETXEBERRIA  
Igantzi

Ni orain dela 2-3 urte hasi nintzen Elizondorat joaten, bitartearaino

beti joan izan naiz Irunera, mediku partikular batengana. Enterratu nintzen Elizondon hagitz ongi egiten zutela, eta ezkeroztik harat joaten naiz beti. Ni kotxearekin joaten nintzen haraino, beharko! Beratik eta Lesakatik autobusak badira baina herri hauetatik deus ere ez. Elizondoraino 30 kilometro inguru dira eta errepede aski txarra da gainera.

Ongi baldin bazaude urtean behin joan behar duzu ginekologoarengana errebisioa egitera, baina ni joan den urtean bi aldiz operatu nintzen Iruñean eta pila bat bidai egin nituen.

Neretzat berri ona da Beran jartzea, puska hurbilago dago eta. Ttapi-ttapan leitu nuen, eta pentsatu nuen ongi izanen litzatekeela. Hor paratzen zuen bortz herrietan badela nahiko emakume horrelako zerbitzu bat emateko, eta hori egia da. Bertzalde, Elizondon ere ez dute bertze munduko gauza, eta nik uste hemen paratzen ahal den bertze horrenbertze.



ttipi-ttapa  
fundazioak  
Europako  
Batzordearen  
dirulaguntza  
jaso du

## ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

### LESAKA:

• Asteleheneetik asteazkenera 9-13etara eta 15-19etara

• Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara

Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 948 637050

### BURLATA:

ARTEKARI, S.L., ☎ 948133328•133346. Faxa: 948133713

Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- \\ Langile Autonomoak
- \\ Nekazariak eta mendi-langileak
- \\ Nominak eta Aseguro Sozialak
- \\ Lan-kontratutarako laguntzak
- \\ Enpresa berri ezberdinen sortzea
- \\ Diru-laguntza ezberdinak
- \\ Kontabilitateak
- \\ IVA eta IRPF
- \\ Errenta aitopenak
- \\ Elbarritasun eta jubilazio tramiteak
- \\ Bideragarritasun planak



## IRAKURLEAK MINTZO

Xiberoko Botza irratia Jaun andereak, Euskarazko irratia bat behar dugu Zuberoan! Mezu hori errealitate bihurtarazita, orain dela ia hogeitaz sortu genuen Xiberoko Botza. Gaur egun, bultzada bat eman nahi diogu gure lanari. Xede horretan, teknologia berrienak erabiltzen hasiak gara eta, laster ere, egoitza berri batetan egongo gara. Kultur biziaren erdimuinean geratzeko asmoz, Maule erdi-erdian kokatutako elkartearen etxean jarriko ditugu gure estudioak. Aurtengo gure kanpainari oihartzun zabalago bat eman nahi diogu eta hortaz, Euskal Herri osora zabalduko dugu. Horretarako, zuen laguntza premiazkoztat daukagu. Hor beheko aldean ageri den laguntza-orria bete eta gure kontuan sartzea eskertuko genizueke.

XIBEROKO BOTZA



Pariseko bidaiak Martxoaren 12an, igandean, goizik jeiki gira eta "TGV" hartu dugu Pariserat joateko. Heltzean, autobus batekin ingurua egin dugu eta aintz gauza eder ikusi ditugu. Astelehenean, "Disneyland" erat joan gira eta egun mi-resgarri bat pasatu dugu. Astearte goizean "metro" hartu dugu eta Jakitate hirira joan gira. Han, aintz gaurerik ikusi eta eskuratu ditugu. Egun interesgarri bat izan dugu. Asteazkenean, gure puskak bildu eta "Notre Dame" katedralaren bisitatzerat joan gira. Oso ederra eta harri-garria da! Gero, dinosaurus batzuren begiztatzen izan gira Asmatze jauregirat. Arratsaldeko 6ak eta erditan "TGV" hartu dugu etxerat itzultzeko. Bidai oso ederra egin dugu. Kontent ginen Sarako aire onaren berriz senditzea!

"SAN JOSEPE" ESKOLAKO IKASLEAK  
SARA




## OHARRA:

*Iritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izen-deiturak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren fotokopia agertu beharko dira. Laburtu beharra izanez gero, ttipi-ttapak bere esku izanen du horretarako eskubidea. Ez dira argitaratuko beren nortasuna agertzen ez digutenen iritzirik.*

Dendarien elkartea Lehenik eta behin eskerrak eman nahi dizkiegu komunikabideei zozketa hau zabalitzen laguntzeagatik, eta batez ere gure bezeroei, hoi ez zuzenduta dago eta. Arront positiboa da zozketa balorazioa, gure in-tentzioa hemengo komertzioetako erosleen fidel-tasuna saritzea baitzen. Ikusi izanen duzuen bezala gure lema "hemen bizi, hemen erosi" izandu da eta horrekin bezeroari dei egin nahi diogu gure eskualdean erosi dezan, kontsumitzailearen askatasunari errespetu osoz, beti ere. Izan ere, saltzaileak gara zentro komertzial handiekin lehiatu behar dugunak, behar baldin bada gure dendetan espezializazio aldera errekonbertsio bateginez. Hori da denda tikien etorkizuna: "ez da zaila bezero berriak egitea, mantentzea baizik", eta hori da gure lana. Beraz, proiektu honekin eta bertze formakuntza ikastaro batzuekin, erakusleho lehiaketekin... komertzio bizi eta dinamikoaren itxura eman nahi dugu, eta ez merkatal gune handien kexu bizi di-

ren denden itxura. Horrela bada, zuen eskuetan dago kontsumitzaileak betiko komertzioaren alde apostu egingen segi dezan.

JAVIER PINA ESARTE  
DENDARIEN ELKARTEKO  
PRESIDENTEA



## ALKARREKI ERAIK DEZAGÜN XIBEROKO BOTZA !

Izen - deltura


Helbidea

Herrialdea

- 1000 pezetako laguntza bat ematen diot Xiberoko Botzari
- 2000 pezetako laguntza bat ematen diot Xiberoko Botzari
- 5000 pezetako laguntza bat ematen diot Xiberoko Botzari
- ..... pezetako laguntza bat ematen diogu Xiberoko Botzari

Gure kontu korrentearen ezagutza : Kutxa  
2101 0045 91 001092747.3

Xiberokoak eraik beza botza - P.K 7 - 64 130 MAULE



# ttipi-ttapa TXARTELA

Orain TTIPI TXARTELA izateagatik abantaila gehiago izanen dituzu. Erosketa egiterakoan erakutsi TTIPI TXARTELA eta deskontuak izanen dituzu honako denda guzietan:

## DESKONTUAK

### AUTO ETA BIZIKLETA TALLERRAK

KATEA BIKE. . . . . Bera . . . . .  
DATUCELAY . . . . . Elizondo  
SANSIÑENA . . . . . Elizondo  
ZALAIN MOTOR . . . . . Bera

### AUTO-ESKOLAK

SEMPER . . . . . Bera

### ARGAZKI DENDAK

AYLA . . . . . Bera  
GOIKO . . . . . Bera  
MENA . . . . . Doneztebe/Elizondo  
ZALDUA . . . . . Doneztebe/Elizondo

### ARROPA DENDAK

EDURNE . . . . . Bera  
SAIOA . . . . . Doneztebe  
J.J. PIGABEA . . . . . Doneztebe  
TXIRRISTA . . . . . Doneztebe  
KAMAMILA . . . . . Doneztebe  
IPINGI . . . . . Elizondo  
MARELI . . . . . Elizondo  
KATTALINGORRI . . . . . Elizondo  
FANTXIKE . . . . . Elizondo  
OSIÑA . . . . . Lesaka

### ELEKTROGAILU DENDAK

MARIXUS . . . . . Lesaka  
ALTZURI . . . . . Lesaka

### ESTETIKA ZENTRUAK

AMAIA . . . . . Doneztebe  
MARIAN . . . . . Lesaka

### KIROL DENDAK

IPARLA KIROLAK . . . . . Elizondo  
ZELA KIROLAK . . . . . Bera  
AGARA KIROLAK . . . . . Bera

### LENTZERIAK

MARICRUZ. . . . . Doneztebe  
MAITE . . . . . Elizondo  
DEÑE. . . . . Lesaka

### LIBURUDENDAK

NAFARPRESS . . . . . Elizondo  
LEGARRA . . . . . Lesaka  
MAIMUR . . . . . Leitza

### OPTIKAK

OSTARGI. . . . . Bera  
ARGIBEL. . . . . Elizondo

### ESKULANEKO MATERIALAK

EL DESVAN . . . . . Bera

### PENTSUAK

MENDAUR . . . . . Doneztebe

### TINDATEGIAK

JAIONE . . . . . Doneztebe

### ZAPATADENDAK

ALDI ROZAS. . . . . Bera  
KALOTXA . . . . . Bera  
GOÑI. . . . . Elizondo  
NEREA . . . . . Doneztebe  
OSTIZ . . . . . Doneztebe

**Eskatu lehenbailehen zure  
TTIPI TXARTELA eta aprobetxatu  
ematen dituen abantaila guztiak**

**☎ 948 631 188**



☞ Dabid ANAUT *Leitzaldeko Euskara Teknikaria*

## Itsurik okerrena, ikusit nahi ez duena



Askotan esan da merezi ditugun agintariak ditugula. Ez dut uste. Ez dut uste inork Sanz b e z a l a k o agintaria merezi duenik, benetan. Bere ateraldiak batzuetan xelebrekeriatzat jo ditzaizkion arren (“agur jaunak dantzatzea”...), gehienetan zeharo iraingarriak dira. Euskararen kontra batez ere, barrenak jaten dizkion grina agertzen du beti. Sanz, eta baita PSOE-

ko Lizarbe ere, ohar-tu dira Nafarroako herritarren euskararen aldeko apostuaz: 48.246 sinadura bildu dira “euskararen lege berria”ren alde; euskarazko irakaskuntzaren aldeko joera urtetik urtera indartzen ari da; Nafarroako Gobernuak berak egindako ikerketetan ikusten da nafarren jarraera gero eta argiagoa dela euskararen alde; Bai Euskarari ekimenak Sadar estadioa bete zuten eta Euskararen Plan Estrategikoan nafar gizarteko elementu erreferentzialak sartzen ari dira;... Apostu horrek bere tamainako erantzuna behar du eta, besteak beste, euskara Nafarroa osoan ofiziala izan dadin eskatzen du, ezinbestean. Ez litzateke nahikoa izanen, baina behar-beharrezkoa da. Gure agintariak, ordea, begiak itxi, belarriak estali, eta tinko eutsi diote kontrako bidari. Argudioak? Sanzen maila intelektualari eta politikoari dagozkionak: “Erdaldunak diskriminatu-ta daude Nafarroan lanpostu batzuetan euskara balo-

ratzen delako”. Administrazioan langile euskaldunik ez badago nola beteko dira euskaldunon hizkuntz eskubideak? erdaldunak Nafarroako diputazioarekin, adibidez, bere hizkuntzan hitz egiteko eskubidea baldin badu, euskaldunok zergatik ez? ez al da euskara Nafarroako hizkuntza?

Lizarbek esandakoa ez da makalagoa. “Unibertsitatean espainolez ikasi behar da”. Zergatik? gaur egun euskaraz ikasten duten milaka ikaslek zergatik ezin dute

Sanzek eta Lizarbek ukatzen dizkiguten hizkuntz eskubideak, 1948an Nazio Batuen Erakundeak onartu zituen Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean.

euskaraz ikasten jarraitu? nor da Lizarbe, unibertsalaren eskubide bat nafar herritarrei ukatzeko? “unibertsitate ez da euskara ikaste-tokia” esan du. Jakina. Ez dugu unibertsitatean joan nahi euskara ikastera. Matematikak, soziologia... EuskaraZ ikastera joan nahi dugu, beste batzuk erdaraz ikasten duten bezalaxe.

Sanzek eta Lizarbek ukatzen dizkiguten hizkuntz eskubideak, 1948 urtean Nazio Batuen Erakundeak onartu zituen Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean. Ideia demokratikoetan gutxienez 42 urteko atzerapena dute biek. Beraz, berriz erakutsi beharko zaie gizartea oso aurretik doala eta ezin dutela nafar borondatea horrela gutxietsi.



## Baztan-Bidasoako Euskaltzaleen II. Topaketak maiatzaren 3tik 17ra izanen dira

### Doneztebeko Juansenea etxean bilduko dira astelehen eta asteazkenetan

TTIPI-TTAPA

Baztan, Bortziriak eta Malerreko Euskara Zerbitzuek bigarren aldiz antolatutako Baztan-Bidasoako Euskaltzaleen Topaketak maiatzaren 3tik 17 artio burutuko dira. Orain dela hiru urte lehen topaketak egin zirenean bezala, Doneztebeko Juansenea etxean bilduko dira eskualdeko euskaltzaleak, astelehen eta asteazkenetan. Matrikula doan izanen da eta izen ematea maiatzaren 2a baino lehen egin beharko da. Informazio gehiago jasotzeko edo izena emateko Euskara Zerbitzuetako telefono hauetara deitu behar da: Baztanen, 948 580006 edo 948 581007 (Paula); Bortzirietan, 948 634005 edo 948 634125 (Patri) eta Malerrekan 948 451746 telefonora.

SOLASALDI ETA MAHAINGURU INTERESGARRIAK

Baztan-Bidasoako euskaltzaleen topaketa hauetan, eskualdeko



euskararen egoera aztertuko da arlo ezberdinetan. Honela, maiatzaren 3an «Euskararen unibertsoa Baztan, Malerreka eta Bortzirietan 1999» ikerketa kuantitatiboa eta kualitatiboren emaitza eta gogotak eskainiko ditu Carlos Vilches, Taller de Sociología taldeko soziologoa eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasleak. Ikerketa honen emaitzak paper gainean banatuko badira ere, ondorio nagusietakobat hauxe izanen litzateke: «*Gaur egun euskaraz bizitzea*



1997an egindako lehendabiziko topaketetan eskualdeko euskaltzale aunitzek hartu zuten parte.

Artxibokoa

ezinezkoa da». Halere, inkesta erantzun dutenek ezberdintasunak ikusi dituzte herrietan eta euskarak bere prestigioa berreskuratu

behar duela uste dute.

Maiatzaren 8an, Bortzirietako eta Malerreko merkataritza establezimenduetako kontsumitzaileen hizkuntza ohitura eta jarrerari buruz ariko da Juanjo Allur, Siadeco ikerketa taldeko kidea.

Maiatzaren 10ean karrika neurketak izanen dituzte solasgai Patri Arburua eta Paula Kasares, Bortzirietako eta Baztango euskara teknikariek. Zehazki, azken urteotako erabilera eta joerak aztertuko dituzte.

Maiatzaren 15ean, «Hizkuntza ukipena/ukapena Baztanen» gaia jorratuko du Paula Kasares berak.

NON DIRA EUSKARA TALDEAK?

Topaketa hauei akabaila emateko mahainguria izanen da, non dira euskara taldeak? galderari erantzuna topatu nahian. Malerreko Langarra, Baztango Doike eta Bortzirietako Erausian taldetako ordezkariak izanen dira solasean.

**ie** Iriarte-Echandi, s.l.

- Aholkularitza
- Artekarietza
- Aseguruak

Kanttonberri 1 • BERA • Tel eta Faxe: 948 631169

**rtzi U I**

**E**

Ezti r z h T l f x 3 15 21

**UJANIK - GORTIKIA**

Altzate, 19 • 948630786 • BERA

**PINTURAS LEGUIA S.L.**

Rafa: 600 819 640  
Jose: 666 235 466

Eztegara 26, 2.C - BERA

**ROMANO PINTURAK**

Barnealdeko dekorazioa, pintura, papera, moketa eta sintasola.

☎ 948 63 11 37 / 649 84 01 49 • BERA

**LABEZAK**

☎ 948631076 • BERA

# Ginekologia kontsulta jarriko dutela jakinarazi diote Uxuari

## Udalera ez da ailegatu erabaki horren berririk

### ASIER GOGORTZA

Aitzineko TTIPI-TTAPAN aipatu genuen bezala, Uxua Emakume Taldeak Beran ginekologoaren kontsulta bat irekitzeko eskaera egin zuen Herrikoetxean. Udaltzarak behar hori nabaria dela eta ahal zituen gestioak eginen zituela agindu zien, eta iduri duenez bere fruituak eman ditu eskaera horrek. Uxua Emakume Taldeko kide batek jakinarazi digunez, apirilaren 5ean Iruñeko Osasun Zerbitzutik dei bat hartu zuen, euren eskaera onartua zutela abisatuz.

Dena den, erran behar da ofizialki ez dela gai honen inguruko berririk agertu, eta Elizondoko COFES-HAIZEAko langileek ere ez dute argibiderik jaso. Uxua Emakume Taldeko Blanki Etxeberria kontent dago eskaerak izan duen erantzunarekin: «*lehendabiziko pausua emana dago eta uste dugu onerako dela. Orain falta zaigu tokia eta data zehatza jakitea*» adierazi du. «*Kontsulta hori Osasun Etxean bertan jarriko dutela pentsatzen dugu, baina esperoan gaude ea zerbait gehiago erraten diguten*».



### Guardia Zibila EHEren martxa oztopatzen saiatu zen

Euskal Herrian Euskaraz taldeak gure hizkuntzaren alde antolatu zuen martxa apirilaren 3an sartu zen Beran. Argazkian ikusten ahal den bezala Guardia Zibil andana batek egin zion ongietorria, eta herrian barna egin beharreko ibilbidea oztopatzen saiatu ziren etengabe. Halere, jende multzo handi batek parte hartu zuen Osasun Etxerainoko ibilbidean. Bertan Antonio Valderrabano arduradunari gutun bat eman zioten, Osasun zerbitzuak euskaraz jasotzeko eskubidea ez dela betetzen salatuz. Errate batera, 4 hilabete baino guttiagoko kontratua duten langileak berak aukeratzen ditu, eta ia beti erdaldunak izaten omen dira. EHEren martxa hau, Euskal Herri guziri itzulia eman eta gero, Bilbon akautu zen hilaren 15ean.

### Herriko bestetako egitarauan berrikuntza dexente

Apirilaren 11n San Esteban bestetako ekitaldietaz solasteko bilkura egin zen Herriko Etxean. Udal ordezkarietz gain, kuadriletako jendea, kultur taldeetako eta musika taldeetakoak elkartu ziren.

Egitarauan eginen den aldaketa nabarmenena, beharbada, kukañaren berreskuratzea izanen da. 1983. urtetik galdua zegoen ohitura ikusgarri hori egunero eginen da, San Esteban egunean ezik.

Bertzalde, herri-bazkaria ere eginen da bestetako ortziraletan, eta bazkalondoan eski-karrera eta gisako jostetak eginen dira.

Migatueta ere aldaketak izanen dira aurtengoan, Berako plazak egiten duen borobilean soilik ibiliko baitira, eta lurtean area botako omen dute. Migatuak Lizarra aldetik ekartzeko intentzioa erakutsi dute, orain artekoak baino tikiagoak, baina baita bixiagoak ere.

### ▼ flash

❖ "El florido pensil" Tanttaka taldearen lanik ezagunena eta arrakastatsuen ekarriko du Berako Euskaraz Batzordeak. Gerra Zibilaren ondoko garaietan eskola bateko umeez kontaktzen dituzten gertaera umoretsuek osatzen dute antzezlan honen mamia. Maiatzaren 6an izanen da, Kultur Etxean.



❖ Takolo, Pirritx eta Porrotx Ttikientzat ere izanen da denborapasa atseginik maiatza hasiera horretan. Izan ere, pailazo hauek beren azkeneko ikuskizuna ekarriko dute herrira, "Plisti-plasta" izenekoa. Maiatzaren 7an izanen da pailazoen emanaldia, eta Ricardo Baroja eskolak antolatu du.

❖ Espidobaita elkartearen zozketa Espidobaita elkartearen zozketa, bi pertsonendako asteburu bateko egonaldia landa etxe batean, martxoaren 31ko ONCEko azken hiru zenbakiekin bat etortzen zen boletoari eman zaio: 264ari, hain zuzen ere.

**Javier Manterola**  
TEKNIKO  
INSTALATZAILEA  
iturgintza • gasa • kalefakzioa  
Tfnoa: 948 630 031 • BERA

**ALZURI**  
• Sukalde tresneria eta opariak  
• Landare eta loreak  
Tel.: 948 630 370 • BERA

**SAROB**  
okindegia   
SANDERS Pentsuak  
Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA



# BORTZIRIETAKO HIRI-HONDAKINEN MANKOMUNITATEA

## Jakinarazten dut:

2000ko lehen urterdiko zabor bilketa eta tratamendu zerbitzuetako tasak kobratuko direla, ondoren seinalatzen den bezalaxe:

### Ordaintzeko era:

#### Ordainketak banketxeetan helbideratuta ez dituztenak:

Abisuan agertzen den edozein kontutan eginen da ordainketa nahi den banketxetik, abisu hirukoiztua aurkeztuz.

#### Ordainketak banketxeetan helbideratuta dituztenak:

Kontutik zuzenean kobratuko zaie.

### Ordaintzeko epea:

- 2000ko maiatzaren 31n bukatuko da.
- Ordaintzen ez bada, epea ekainaren 30a arte luzatuko da. Luzapen horri dagokion interesa aplikatu ahal izango da.
- Aipatutako epea pasa ondoren, premiamenduzko exekuzio bidez %20 errekarquarekin kobratuko da.

*Bortzirietan, 2000ko apirilaren 1ean*

Presidentea  
Miguel M<sup>a</sup> Irigoien Sanzberro

## 2000. URTEKO TASAK

### ERABILTZAILAILEEN eta TASEN MAILAK

Zentsatutako etxebizitza guztiak, bertan norbait era iraunkorrean bizi ala ez: 7.450 pezeta.

Zaborrontzira 200 metrotik 500 metrora dauden baserriak: 6.330 pezeta.

Zaborrontzira 500 metrotik gora dauden baserriak: 5.210 pezeta.

**1. Merkataritza eta zerbitzuak.** Elikagaien eta elektragailuen sektorekoak ez direnak: mertzeriak, drogeriak, burdindegia, okindegiak, ileapaindegia, lan-bulegoak: 7.450 pezeta.

**2. Merkataritza.** Elikagai dendak (harategiak, arraindegia, janari-dendak), elektragailu dendak eta farmaziak: 14.840 pezeta.

**3. Merkataritza.** Autozerbitzuak: 22.280 pezeta.

**1. Ostatua.** Noizbehinka irekitzen diren ostatu eta biltegiak eta jarrailan irekita egoten diren bertze batzuk ere, 30 m<sup>2</sup>ko edo gutxiagoko azalera dutenak: 14.840 pezeta.

**2. Ostatua.** 30m<sup>2</sup> baino azalera handiagoko ostatuak eta janaridenda daukaten ostatuak: 29.710 pezeta.

**3. Ostatua.** Pub eta diskotekek: 37.120 pezeta.

**1. Jatetxea.** Modu iraunkorrean irekiak dauden elkarte gastronomikoa, eta borts mahai edo gutxiago dituzten jatetxeak: 37.120 pezeta.

**2. Jatetxea.** Borts mahai baino gehiago dituzten jatetxeak: 66.830 pezeta.

**1. Hostala.** Hamar logela edo gutxiagokoak: 51.950 pezeta.

**2. Hostala.** Hamar logela baino gehiagokoak: 74.230 pezeta.

**Merkataritzako saltokiak,** jatetxerik gabekoak: 74.230 pezeta.

**Merkataritzako saltokiak,** jatetxedunak: 111.350 pezeta.

**Lantegiak,** lau langile bitarte: 7.450 pezeta.

**Lantegiak,** 5-10 langile bitarte: 14.840 pezeta.

**Lantegiak,** 11-30 langile bitarte: 37.120 pezeta.

**Lantegiak,** 31-60 langile bitarte: 74.230 pezeta.

**Lantegiak,** 60 langile baino gehiagorekin: 111.350 pezeta.

Zuzenean zabortegira botatzea: 250 pezeta metro kubikoa.



➔ **LESAKA**

# Bernardo Zozaiak irabazi zuen V. Rally-Sprint auto lasterketa

## 44 auto gidarik parte hartu dute aurtengo karreran

**AITOR AROZENA**

Iruñeko Bernardo Zozaiak gidariak (Mitsubishi Lancer) irabazi zuen apirilaren 9an burututako V. Rally-Sprint auto lasterketa. Manuel Cabo izan zen bigarren eta Antonio Aristi hirugarren. Urtero bezala, jende aunitz bildu zen Agiñako bide bazterretan, Eguzki-Sport eskuderiak antolatutako proba ikustera. Herriko eskuderiako gidarien artean, Jon Iparragirre eta Ruben Tapiain izan ziren onenak, zazpigarren postuan. Ramon Zozaiak eta Jose Antonio Aiestaran zortzigarren postuan sartu ziren. Guzira 44 autok hartu zuten parte.

Sanferminetako kartel eta azal lehiaketa

Sanferminak iragarriko dituzten kartela eta programaren azal lehiaketarako deia luzatu du Herriko Etxeak. Lanak apirilaren 30a baino lehen aurkeztu behar dira udal bulegoan, lehiaketa honetan ohikoa den sistema erabiliz. Sail bakoitzean, 50.000 pezetakoa izanen da lehen dabiliko saria. Xehetasun gehiagoren berri Herriko Etxean eskatzen ahal da.



«Oroigarri faxisten aurkako ekintza» bere gain hartu du herriko gazte talde batek

Elizarako bidean, Espainiako Gerra Zibilean Francoren alde hildako lesakarrak gogoratzen duen oroitarriaren aurkako ekintza bere gain hartu du herriko gazte talde batek, TTPI-TTAPA igoeritako idatziaren bitartez. Idatziak dioenez, «Lesakako gazte talde batek, oroigarri faxista bati eraso egin zion, "Caidos de Lesaca por Dios y por España", bertako letrak zementatuz eta Gora gure gudariak esaten duen pintada ipiniz. Estatuei intsumisioa kanpainaren barruan egindako ekintza dugu».

Antzerkizaleei deialdia

«Trizikloa» antzez-lana eskaini eta gero, Antzerki Tailerrak antzerkiaren oinarriak landu eta sakontzeko saio batzuk egingen ditu apirilaren 15etik ekainaren 24ra. Tailerra, 18 urte beteak eta antzerkian interesatua dagoen guziri irekia dago. Larunbat goizeko 11etatik 1etara bilduko dira ikastolako gimnasioan, beraz, in-

teresa izanez gero bertara agertu. Bertzenaz, 948 637145 (Gaizka) edo 948631162 (Ramon) telefonoetara deitu. Udako oporraldia- ren ondotik, tailerrak bere martxa segituko du, bi aukerekin, helduentzako eta 18 urte bete ez dituztenentzako.

1969-70-71koen Kinto bazkaria 1969, 1970 eta 1971 urteetan sortutako

kinto bazkaria ospatu- ko da apirilaren 29n. Bazkaria Irubiden in- nen dute eta txarte- lehenbailehen erosi- har dira Haizegoa e- Koskilla ostatueta 2.000 pezeta ordaind

Ezpatadantzari bila

Ezpatadantzari izan nahi duenak ag- dadila apirilaren 29n larunbata, arratsalde 3etan Irain eskolara.

**Personaiak**

### Pilota Teknikazio Zentruan aritzeko aukeratu dute Xabier Zozaiak palista

Xabier Zozaiak Mendiberri, Oberena taldean ari den herriko palista aukeratu izan da Nafarroako Gobernuko Kirol eta Gazte- diaren Institutuak martxan jarri duen Pilota Teknikazio Zentruan parte hartzeko. Zozaiak 22 urte ditu eta joan den urtean Nafarroako txapel- dun suertatu zen lar- zuko pal- letarekin eta azpitxapel- dun pala motzarekin. Hemendik bi urtera Iruñean jokatu- ko den Munduko pilota txapel- etarako prestatzea da tek- nifikazio zentru honen hel- burua, Xabierrek azaldu digunez: «Fisikoa eta tek- nika lantzen ditugu, gero bakoitzak bere klubean egiten ahal duen lanare- kin batera». Espainiako Federazio arteko txapel- keta jokatzeko ari da orain Zozaiak. Joan den urtean txapel- dun izan zen txapel- keta honetan ere.



Xabier ZOZAIK

**ANA**  
janaridenda  
Bittiria, 41 • 948637518  
**LESAKA**

**Txema Etxarte**  
Zolen akutxilatze eta bernizatze profesionala  
948 637439 • 670 215604 • 31700 LESAKA

**Deñe**  
LENTZERIA  
MERTZERIA  
Tfnoa.: 948 627 514  
Beheko Plaza 8, LESAKA

**kixkuna**  
Ileapaindegia  
Tel: 948 637429  
Bittiriako Plaza, 3 behea  
**LESAKA**

ETXALAR

# Altxata kultur elkarteak urteko Batzar Nagusia egin du

Bazkide gehiago izanagatik, ez zen gehiegi agertu bilkurara

PELLO APEZETXEA

Altxata elkarteak 105 kide ditu. Beraietatik gazteak ez aunitz. Nahiz eta bera izan gauza gehien herrian prestatzen duena, ez da jende gehiegi Batzarretara biltzen. Bertze bilkuretan ere gehienetan gertatzen den bezala. Apirilaren 2an joan den urteko kontuak eman ziren, eta urte honetakoak eta urtean barrena egiteko diren asmoak agertu zituzten juntakoek. Ekin-tza nagusia, hondar urtetan bezala, Gasna Feria Eguna izanen da, ekainaren lehen igandean. Horretaz xehetasun gehiago izanen di-

tuzue, geroago, hemen bertan. Bildutakoak guti samar zirelako, Junta erdia berritzeko zenbaitzuekin solasteko gelditu ziren.

Posta zerbitzuko arduradunekin biltzea eskatu du Udalak

Bigarren aldiz galdetu du Udalak Postako arduradunekin biltzea, lehenbiziko idatziari ez baitiote erantzun ere egin. Ez du iduri beren erabakietan aldatzeko intentzio haundirik dutenik. Osasungintzan nahiz Posta zerbitzuan izan diren murrizteetan, goitik agindu eta men egin beharra gertatu da,



Etxe berri aunitz Bekolanda auzoan Bekolanda auzo itxura hartzen ari da. Azkenaldian egiten ari diren etxe berri batzuk ageri dira argazkian. Argazkia: Pello

orain arte. Denak errenkuratzen gara gertaera horietaz, baina galde-modua zera da, ea aski egin den gertatutakoa ebitatzeko. Zeren eta, oraingo murrizketak gehiago eta haundiagoak izaten joanen ote diren pentsatzekoa baita, bertze herritara hedatuz gain.

IKak euskara ikastaroa plantatuko du

Landagain eskolako hainbat leku galdetu dio Udalari Bortzirietako

Euskaltegiak, bertan euskara ikastaroa eskeintzeko asmoz, abuztu-tuan. Udalak, aintzineko urteetan bezala, onartu du eskaera, betiko baldintzetan. Landagain Eskolako zuzendariaren baimena behar du te orain, lehen ere izaten dutena.

Usoa Koperatibak 77 milioi saldu ditu

Usoa Koperatibak 77 milioi eta erdi saldu du hondarreko urtean, 1998an baino milioi bat gutiago. Aziendadunak

gutitzen ari badira ere, Koperatibak pentsu salmenta mantentzen du, kanpotik erosten diotenearekin. Herritarren erosketak erdia ez baitu gaintzen. 1999an, 2 milioi eta erdi gehiago izan dira sarrerak gastuak baino. Apirilaren 16an, ttipi-ttapa hau inprentan dagoela, egin izanen du Batzar Nagusia Koperatibak, Zuzendaritza Kontseiluaren zati bat eta kontu-hartzaileak berritzeko, kontuak emateaz gain.

**BEKO ERROIA**  
Lore eta landareak  
☎ 948 63 78 26  
Frain auzoa • LESAKA

**BOIXO**  
☎ 948630052 • Zalain • BERA

**KATU**  
ostatu - jatetxea  
Plater konbinatuak eta menuak  
☎ 948627573 • LESAKA

**XATURETXEA**  
**ZABA JATETXEA**  
Tfnoa: 948637027 LESAKA

**IRU BIDE**  
ERRETEGIA  
Tfnoa: 948 637 127  
LESAKA

**MURULA**  
**Ioredenda**  
Albistur, 39-K  
☎ 627542  
LESAKA  
• bitxikeriak •  
• opariak •  
• enmarkazioak •

**BORTZIRI**  
**UNSION ANAIK**  
sukalderako haltzariak  
**ERAKUSKETA**  
Bereau etxea • LESAKA  
Tel eta Faxa: 948 637 266

**OBRA PROIEKTUAK**  
✓ Etxe berriak eraikitzeko  
✓ Zaharbarritzeko kanpotik eta barnetik  
✓ Urbanizazio proiektuak  
✓ Obra-zuzendaritza  
Udalendako aholkularitza-zerbitzua hirigintza lanetan  
**BIDASOA**  
arkitektura bulegoa  
Bittiria, 45 • ☎ 948 637 503 • LESAKA

IGANTZI

# Eskolaren leku arazoak moldatzeko bilerak egin dira

## Maiatzaren 1ean akautuko da Galiziarako joateko izenemate epea

**OSKAR TXOPERENA**

Urte dexente darama Igantziko Eskolak bere leku arazoei behin behinako aterabideak emanez. Orain arte gela haundiak puskatuz edo bertze batzuk egokituz segitu ahal izan da, nolabait ere. Azken bolada honetan, ordea, hurrengo urteetan etorriko diren beharrei erreparatuta, partxeak paratzeaz aski badela pentsatu dute bai Guraso Elkarteak eta baita irakasleek ere. Euren artean bizpahiru bilera egin ondotik, Herriko Etxeko zinegotziengana jo dute, arazoa zein den argitzeko eta, ahal

izanez gero, elkar hartu eta gaia aintzinerara eramateko. Horretarako bi taldeekin egin zuten bilera martxoaren 13an Herriko Etxean. Bertan, luze solastu ziren eskolak azken urteotan izan duen aldaketaz, eta, aintzinerara begira, heldu direnetaz ere. Gaiaren garrantziaz jabetuta, hurrengo egunean berean egitekoa zuten bilkuran aztertuko zutela agindu zuten.

Galizira bidaia

Ekainaren 6tik uztailaren 5era bitartean Galizia ezagutzeko Parrokiak antolatutako bidairako izenemate epea laister akautuko



### Iñaki Zubeldia idazlea eskolako haurrekin

Lehengo egunean aipatu bezala, martxoaren azken egunean izan zen eskolan Iñaki Zubeldi idazlea. Ordubetetik goiti iraun zuen 2. eta 3. zikloko haurrekin izan zuen solasaldiak. "Pako belea"ri buruz solasteaz gain, bere idazteko oituretaz ere bertze hainbertze galdera erantzun behar izan zituen. Garbi utzi zuen haurrekin harremanetan jartzeko ez duela batere arazorik.

Argazkia: Oskar Txoperena

dela gogoratu behar da, maiatzaren 1ean hain zuzen, eta bidaiarengatik ordaindu beharrekoa, berriz, 58.000 pezeta. Erran bezala, Galizia ezagutzen ematen dituzte egun gehien, baina, joan-etorria aprobetxatuz Cantabria, Asturias, Leon eta Burgosi ere egingen dizkiote bisitatxoak. Nahi

duen guziak hartzen ahal du parte bidaia honetan.

Arkupeak Iruñera

Joanden astean, martxoaren 13an, Iruñean urtero egiten den bilkuran izan genituen Arkupeakeko zenbait bazkide. Jakina den bezala, garai honetan bilitzen dira Iruñean soin-

keta edo gimnasia egiten duten adinekoak. Urte guzian gimnasia egiten 8 lagun (Jose eta Ana M<sup>a</sup> Zelaieta, Mari Paz Trantxe, Juanita Urtxegi, Angelita Oskoz, Asuncion eta Dolores Retegi eta Eulalio Garro) ibili badira ere, 25 izan ziren Iruñeko erakustaldira hurbildu zirenak.



**J. RAMOS**  
Zolak akutxilatuta eta barnizatzen ditut  
☎ 948631342 BERA • ☎ 94863172 LESAKA



Makinaria eraikuntza  
Moldaketak eta despiezea  
Mantenimendu mekanikoa  
Torno, fresadorak, errektifikadorak  
Igantziko Bentak • ☎ 948 627572 • Faxa: 948 637508

**Jose Canabal**  
elektrizista  
☎ 948 637541  
☎ 666 575899  
**IGANTZI**



**LINDURRENBORDA**  
sagardotegia  
¥ 100  
lagunendako jantokia  
¥  
Sagardotegiko



Kalitatezko bakailu gazitua  
**SALAZONES UDANA, S. L.**  
**ESKAINITZA BEREZIA SAGARDOTEGIENTZAT**  
Alkaiaga ind. • Banarta, 8 - 23.pabilioia • LESAKA • Tel. 948 631536 • Fax: 948 631550



**LESAKA**



➔ ARANTZA

# Galizara bidaiia antolatu du herriko Arkupeak elkarteak udarako

Herri Kirol Jolasetako finalean aritu dira igande honetan kirolari gaztetxoak

ELIXABET ETA GARBIÑE

Arkupeak elkarteak oraingoan ere abudo egingen duen bidai baten berri eman du. Horrela, datorren ekainaren 26tik aitzinera Galizia ezagutuko dute bertan pasatuko dituzten hamar egun horietan. Santander, Gijon, A Coruña, Portugal edo Santiagoko katedrala bisitatu dituzte, bertzeak bertze. Bidai hoietara joan nahi duen guztiak izena ematen ahal dio Martin Legarra apezari, maiatzaren 1a baino lehen. Bidaiaren prezioa 58.000 pezetakoa da eta prezio honetan autobusa bidai guzirikoa, gosari, bazkari, afaria eta gaua, bi pertsonentzako gela batean, sartzen dira. Modu berean, bidairako aseguruia ere barnean dago. Animatzen zareten guzietan go-



Arantzako gaztetxoak Herri Kirol Jolasetako finalean aritu dira

Lerro hauek idazterakoan emaitza ez badakigu ere, igande honetan Larraintzarren burutu izanen da Nafarroako Herri Kirol Jolasetako finala. Joan den astean, Arantzán egin zen saioan herriko bi taldeak, haur eta kadeteak, ederki aritu ziren. Ttikienak, txapelketa osoan bezala, azkarrenak izan ziren proba konbinatuan. Kadeteek, berriz, hirugarren postua lortu zuten.

Argazkiak: ttipi-ttapa TB

gorarazi epea akautu baino lehen izena emateko. Nahi duen guzietan zabalik dago bidaiia.

Gazte Asanblada

Azkeneko ortziral hauetan herriko Gazte Asanbladakoek bilerak egin dituzte. Badirudi

berriro ere gogo pixkobat badela zenbait ekitaldi aitzinera ateratzeko. Hori etako bat, Goizuetara egindako mendi ibilaldia izan zen. Joan den larunbatean egitekoa zenez, erran beharra dago goizean goiz aterazirena eta Goi-

zuetan bazkaldu ondotik, arratsaldean autobusean itzuli ziren herriera, nahiz eta bertan gaua pasatu nahi zutenak, Goizuetako Gazte-txean lo egiteko aukera izan.

Bertzalde, abuztuan egingen den Arantza

Rock kontzertua dagoeneko prestatzen hasiak dira. Bertara etorriko diren taldeekin solastu bada ere, aitzinago ematen dugu hauen izenen berri. Honetaz gain, lan taldeak sortu ziren egun horretako lanak banatzeko.

**ANTZUZELAI S.L.**

Inongo errep. - BERA - Tel. 948-631317

**HARRI NATURALA**

ATERATZEA eta LANTZEA

Antzinaldeak	Tximiniak
Angeluak	Erlaiak
Orma antzinak	Moldurak
Leihoak	Zokaloak
Ateak	Hilarriak
Arkuak	Marrakziak
Pilareak	

'Abuztandua'    Maczoo  
Zahar antzekoa    Txapeatua

**ZINTARRIAK  
ADOKINAK  
ZOLAK**

**ALBERGIA  
JATETXEA**

**ATERPE**  
ALBERGIA

☎ 948 634179  
**ARANTZA**

**EDARIAK**

**Bidasoa K/82 - 31780 BERA (Nafarroa)**  
**Tel. - Fax: 948. 63 10 27**

**DROGUERIA MOLINERO**

• DROGERIA • LURRINDEGIA • OPARIAK •

2.000 kolore baino gehiago lortzen ahal duen makina  
10 minututan zuk nahi duzun kolorea  
Profesionalentzat prezio berezia

Eztegara 19 • ☎ 948 63 02 40 • BERA

☞ **SUNBILLA**



Urteak dituzte eskolako haurrek Xorroxin Irratian parte hartzen. Artxiboa

# Eskolako haurrek Bertizko aterpean izan dira

## Xorroxin irratian ere parte hartu dute

### JAIONE ETA ALBA

Apirilaren 10ean eskolako haurrek, beraien irakasleekin batera, Bertizera joateko asmoa zuten, aterpean lo egin eta, bien bitartean, ekitaldi ezberdinak egin eta jostetan aritzeko asmoarekin. Lehendabiziko eta bigarren mailakoak joan ziren. Eguraldi euritsu eta hotzaren on-

dorioz, hiru, lau eta bost urtekoek ez zuten joateko aukerarik izan.

Halere, hurrengo egunean, egun pasa eraman zituzten. Beraien irakasleak dioenez, ahal izanez gero uda aldera bertze nonbaitera eramanen dituzte bizpahiru egun pasatzera, oraingo honetan izugarriko penarekin gelditu baitziren ttikienak.

Bertzalde, joan den astean ere, Xorroxin Irratiak emisora eta tresnak utzi zituen Sunbillako eskolan, neska mutikoek aitzinetik prestatutako saiok emititzeko: Sunbillako istorio zaharrak, errezeak, txisteak, asmakizunak eta bertze kontuak aireratu zituzten irratiaren bidez.

☞ **NARBARTE**

# Juan Pablo Agirre alkate berria

## 38 bildu jaso zituen apirilaren 9an

### TTIPI-TTAPA

Juan Pablo Agirre Altzuart izanen da heldu diren lau urteotan NARBARTeko kontzejuko alkate, apirilaren 9ko hauteskundetan boturik gehien jaso ondotik. Postua betetzeko aurkeztu diren artean Juan Pablo Agirre Altzuart-ek 38 botu bildu ditu. Rikardo Etxenikek 14 botu bildu zituen, Jose Migel Arretxeak 23, Jose Antonio Ibarrek 25, Manuel Francisco Ibarrek 26, Jose Mari Urrotzek 29 (gero uko egin zuen arren). Beraz, Juan Pablo Agirre da alkate berria.

Kontzejuaren funtzionamenduan lan egiten duten pertsona hauek, datuak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu bezain laister hartuko dituzte beren karguak.

Mitxel Aginaga nagusi Gaztelan

Mitxel Aginagak irabazi zuen apirilaren 9an Gaztelako Kanaleko Mendi Duetloi txapelketako lehendabiziko proba. 45 lagunek hasi zuten lasterketa, baina 22 bertzerik ez ziren helmugara ailegatu. Palentziako Alar del Rey herrian 28'5 kilometro osatu behar zituzten kirolariak, lehendabiziko bortzak lasterka, hurrengo hogeita bata mendiko bizikletan eta azkeneko bi terdiak lasterka. Lasterketan, hartzari, euriari eta lohiari aurre egin behar izan zioten. Jaime Azpeleta eta Jose Abundio giblean utzi zituen NARBARTeko kirolariak.



Mitxel Aginaga

**ZALAIN**  
Zalain Auzoa  
☎ 948631106  
BERA  
EGUNERO MENTIA TIA KALIA

Boda eta banketeak ematen dira

**GAZTANDEGIA**  
**LIZUN**  
Etxeko Ardi Gazta  
Petxenekoborda • Tfnoa: 948 450 862 • SUNBILLA

**H. Lopez**  
iturgintza

- Kalefakzioa
- Gas Instalazioak
- Iturgintza industrialak
- Ureztatze sistemak

Tel.: 948 45 21 26  
Mug.: 617 34 99 44  
NARBARTE

**APARAN, S. A.**  
BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 948 450 133  
948 451 541  
Faxa: 948 450 334  
**DONEZTEBE**

**LANCHAS**

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura Orokorrak

Bera ☎ 948630735  
Irun ☎ 943622305

➔ **MALERREKA**

# Doneztebeko kirol zerbitzu guziak kudeatzeko deialdia egin du Udalak

Proposamenak apirilaren 28a baino lehen aurkeztu behar dira Herriko Etxean

**PATXI IRIARTE**

Doneztebeko Herriko Etxeak, kirol eta kulturarekin lotutako udal zerbitzu guzien kudeaketa kontratatzeko deialdia egin du. Zehazki, udarako akituko den udal kiroldegiaren, udal pilotalekuaren, Eskola Publikoko gimnasioaren, eta udal igerilekuen ardurua hartu beharko luke aukeratutako pertsonak. Azken honetan, igerilekuaz gain, ostalua ere hartu beharko luke.

Interesa duten guziek beraien proposamena aurkeztu behar dute Herriko Etxeko idazkaritzan, apirilaren 28ko arratsaldeko 2ak baino lehen. Zerbitzu hauek hartzeko interesa duenak guttienez 1.500.000 pezeta (gehi BEZa) ordaindu beharko dizkio urtero Herriko Etxeari eta adjudikazioa lau urte terdirako izanen da. Proposamena egiterakoan, 100.000 pezeta-ko behin behineko fidantza ordaindu behar da. Behin kontratua egin ondotik, 375.000



Munduko txirrindulari onenak ikusteko aukera izan zen Ikusmin handia piztu zuen Malerrekan Euskal Herriko Txirrindularitza Itzuliak. Apirilaren 6ko etapa, Gasteiztik zetorrena, Donezteben akitu zen. 50 kilometro egin zituzten Munduko txirrindulari onenek Malerrekan barna eta Saldiasko gaina igarotzean norbaitek ihes egingen zuela uste bazen ere, azkenean tropelean ailegatu ziren. Once taldeko Laurent Jalabert txirrindulari famatua izan zen azkarrena. Biharamon goizean, tropeleko txirrindulari famatuak ikusi, argazkiak atera eta autografoak eskatzera jende aunitz hurbildu zen Bordatxo ingurura. Doneztebetik atera eta Ezkurrako gainaren barna, Azkoitia aldera abiatu zen tropela. Azkenean, Telekom taldeko Kloden txirrindulariak irabazi zuen itzulia.

Argazkia: Aitor

pezetako behin betiko fidantza ordaindu beharko da.

Baldintza-plegua eta bertze xehetasunen berri, Herriko Etxeko idazkaritzan daude aztergai, 948 450017 telefonoan.

Sendabelar ikastaroa antolatu du Ezpelurak

Malerekako Ezpeluraren Emakumeen Elkarteak sendabelar ikastaroa antolatu du. Elkartearen helburua landa-

reak ezagutzea eta krekak, ukenduak eta enplastuak egiten ikastea da. Maiatzaren 3an, asteazkenarekin, hasiko da eta 20 orduko ikastaroa izanen da. Izena emateko goizeko 9 eta-

tik 2etara deitu behar da Mankomunitateko telefonora, 948 451746ra eta Ainhoatik galde-tu. Izena ematean 7.000 pezeta ordaindu behar dira.

Euskal Herriko Itzulia Saldiasen ere

Guttitan bezala, apirilaren 6an Saldias jendez gainezka eta denen ahotan zegoen. Saldiasko malda igo behar zuten Euskal Herriko Itzulia, eta jakina da haserako zatia zeinen gogorra den. Igoera 2. mailakoa zen, baina etapa akabailan zegoenez, erasoaldiak espero ziren (gero gauzatu ez baziren ere). Goizetik jendea hasi zen hurbiltzen nonahitik, edo bertzelak galdetu ostalukoei, eskari guziei ezin baitzioten aurre egin.

Aitzaki horrekin Intxureko gurutzetik Saldiasera joateko bidea moldatu zuten. Haserako zati arriskutsuan (izugarri irristakorra baita, batez ere eurria egiten duenean) breia botatu zuten, bihurtzetan bezalaxe.

**ANTOJOS**  
boutique pre-mama

Arbelaiz Jauregia  
Iglesia karrika 8  
(Nafarroako Ibilbidearekin eskin egiten)  
Tel.-Fax: 943 63 41 70 • IRUN

**ETXANDI TXOKO**  
**jatetxea**

Bazkari, afari eta gosariak

ITUREN / Tfnoa: 948 45 04 91

**BELARRA**  
OSTATUA - JATETXEA

Amezti karrika • DONEZTEBE  
Tfnoa: 948 45 03 06

**ola**  
SAGARDOTEGIA

250 lagun eserita  
Klimatizatu  
Sagardotegi menua

102 Meaka auzoa  
20304 IRUN  
Tel: 943 623 130



BEINTZA-LABAIEN

# Ittur-Ondo elkarteko bazkideen eguna maiatzaren 7an

Adolfo Gonzalez eta Jesus Otxandorena garaile mus txapelketan

AMAIA URROTZ

Ittur-Ondo elkarteak ekitaldi batzuk antolatu ditu egun hauetan Beintza-Labaienen. Martxoaren 4an hasi zen mus txapelketan bikote kopuru politak hartu zuen parte. Hiru aste iraun zuen txapelketak eta aurtengo irabazleak Adolfo Gonzalez eta Jesus Otxandorena izan dira. Bildotsa eraman zuten etxera. Finalean Josetxo Bertiz eta Victoriano Juanotenari irabazi zieten. Hirugarren postuan Eduardo Elizondo eta Pedro Aldaia sailkatu ziren. Txapelketa, nola ez, otordu batekin akitu zen.

Belatetik Beintza-Labaienera ibilaldia Mahaiaren ingurutik altxatu eta ariketa pixko bat egiteko aukera ere eman du Ittur-Ondo elkarteak asteotan. Udaberria mendian ibiltzeko garai egokia dela pentsatuz, hogeita hiru lagunek parte hartu zuten martxoaren 26an Belatetik Beintza-Labaienera egin zen ibilaldian. Eguradiak gehiegi lagundu ez bazuen ere, oso pozik eta umoretsu ibili ziren. Bazkari ederrarekin harrera egin zioten ibiltariei Ittur-Ondo elkartearen.

Ittur-Ondoko Bazkide Eguna maiatzaren 7an Aurrera begira, berri, maiatzaren 7an Ittur-Ondo elkarteak ospatuko du bazkide edo



Goiko argazkian, Adolfo Gonzalez, Jesus Otxandorena, Josetxo Bertiz eta Victoriano Juanotena, Ittur-Ondoko mus txapelketako finalistak. Behean, martxoaren 26an Belatetik Beintza-Labaienera mendi ibilaldia egin zuten lagun batzuk.

sozioen eguna, aurtengo bigarren edizioa izango delarik. Ospakizuna eguerdiko 12,30ak aldera hasiko da, Labaiengo auzoko plazan egingen diren herri kirol saioekin. Hasteko, proba konbinatua jokatu da eta, ondotik, sokatira saioa. Bi saioetan elkarteko bazkideak ari-

ko dira elkarren kontra. Ondoren, Markos Tellexeak aizkora erakustaldia eskainiko du. Australiar erara moztuko du enborra, bost metroko altueran, herriko aizkolari bikainak. Kirola egin ondotik, indarrak berreskuratzen, bertso bazkaria izanen da. Bazkideek do-

hain bazkaltzeaz gain, Andoni Egaña eta Sebastian Lizasoren bertsoak aditzeko modua izanen dute. Bazkal ondotik, akordeolariaren doinuak ere ez dira faltatuko, egun ederra bozobiltzeko. Egitaraua ikusiz, Ittur-Ondoko bazkideek ederki igaroko dute beraien eguna.

## Denda berritua zabaldu dute Beintzan

Maribel Oteizak Beintzan zuen denda txikia moldatu eta haunditu ondotik apirilaren 9an zabaldu egin zuten berriro. Nafarroako «A Mano» izeneko komertzio sarean sartu da denda eta CEIN erakundearen laguntza izan du moldaketa lanak egiteko eta «zerbitzuak egokitze» Beraz, dendak zerbitzu berriak ere eskainiko ditu. Janaridenda izateaz gain, okindegia, kafetegia, drogeria eta lurrindenda ere izanen da. Gainera, turismoari buruzko informazioa eskainiko du eta argazkiak eta eskulanak salduko ditu.

ITUREN

## Jose Ignacio Ariztegi hartu du Herriko Ostataua

Herriko ostatuaren enkantera proposamen bakarra aurkeztu zen. Jose Ignacio Ariztegi aurkeztutakoa, hain zuzen. Lehen ere, ostatuan aritua da Jose Ignacio, joan den urteko bestetan eta aurtengo inauterietan. Joan den asteburuan ireki zituen ateak eta irailaren akabaila arte zabalik egonen da.

Sorginen Laratza Ibitza kultur taldeak ekainaren 15ean bidaia antolatu du ETBko Sorginen Laratza programa ikustera. Ostatu guzietan jarri dira izena emateko paperak. Oraindik izena emateko aukera bada.

**EZKURRA**

# Mikel Mindegia Urrezko Aizkora txapelketaren finalerdian ariko da

Maiatzaren 7an Zumaian Peñagarikanoren aurka

**TTIPI-TTAPA**

Mikel Mindegia Urrezko Aizkoraren finalerdietan egonen da, apirilaren 9an Donezteben Anjel Arrospideri irabazi ondotik. Jaialdia hasteko erakustaldia eskaini zuten Mutrikuko Fausto Mugertza eta Ugaitz bere semeak. Honek, hamahiru urterekin hiru enbor moztu zituen 6 minutu eta 11 segundutan. Jendea txoraturata gelditu zen bere estiloarekin eta etorkizunik badagoela erakutsi zuen. Ondotik, bere aitak, altueran moztu zuen enborra.

Gero hasi zen bi aizkolari haundien arteko norgehiagoka. Apostulariek Mindegia zuten faboritotzat eta denborari dagokionez, 27 minututan lanak akituko zuela jokatzeko zuten. Lehendabizikoa betetzen, baina bigarrena urrun xamar gelditu zen, materiala gogor xamarra baitzen. 45 ontzako lehendabiziko enborra Mindegia moztu zuen lehenago. Bigarrenean, ordea, korapilo gogorra suertatu zitzaion Mindegiari eta bigarren enborra gipuzkoarrak baino minutu erdi beranduego moztu zuen Ezkurra-

koak. Hortik lan erdira bitarte aitzinetik joan zen Arrospide, baina Mindegia bere erritmoari eusten zion eta pixkanaka aldea jaten joan zen. Lan erditan hamabortz segunduko abantaila zuen Arrospidek. Hortik aurrera, ordea, Mindegia nagusitzen joan zen. Ezkurra-koa gustora ageri zen egindako lanarekin, baina maiatzaren 7an Peñagarikanoren kontra jokatu duen finalerdia irabazteko osasun egoera hobean egon behar-ko duela adierazi zuen, katarroarekin joan baitzen Doneztebera.



Enborra	MINDEGIA	ARROSPIDE
1. 45"	01' 01"	01' 08"
2. 54"	03' 38"	03' 08"
3. 60"	06' 10"	05' 48"
4. 72"	10' 32"	10' 14"
5. 60"	13' 21"	13' 06"
6. 45"	15' 15"	15' 13"
7. 54"	17' 32"	17' 55"
8. 60"	20' 31"	21' 10"
9. 72"	25' 43"	26' 49"
10. 60"	29' 34"	30' 47"

**BERTIZ**

# Merkatarien Elkarteko bigarren zozketa egin zen apirilaren 11n

50.000 pezetako hiru erosketa bono banatu dira Elizondo, Etxalar eta Lesakan

**TTIPI-TTAPA**

Bertizko Turismo Partzurgoko Merkatarien Elkartek «*Hemen bizi, hemen erosi*» kanpainaren barnean apirilaren 11n egin zuen bigarren zozketa. 50.000 pezetako hiru erosketa bonoen saridunak Etxalarko Jabier Urmeneta, Eli-

zondoko Ilargi ostatua eta Lesakako Maite Iriarte izan dira. Bertzalde, 35 opari ere zozketatu ziren. Ondoko koadroan ageri dira opari hauen irabazleak eta, ondoren, opari hori bildu behar duten denda. Jakina denez, Partzurgoko Merkatarien elkarteak erosketak

bertan egitea bultzatzeko egin du kanpainan hau. Bi zozketetan 70 opari eta 50.000 pezetako bostz erosketa bono banatu ditu. Apirilaren 11ko saridunekin batera, otsailaren 29ko zozketan Elizondoko Helena Leitzak eta Arantzako Pili Bidegaraiak lortu zituzten erosketa bonoak.

Tomasita Etxeberria (Lesaka)	Ruiz autozer. (Doneztebe)
Mª Jesus Aiestaran (Lesaka)	Jaione goxotegia (Bera)
Garbiñe Baselga (Lesaka)	Mª Cruz lent. (Doneztebe)
María Goienetxe (Elbete)	Kalotxa zapatad. (Bera)
Mª Jose Iparragirre (Lekaroz)	Ibarrola (Doneztebe)
Mª Luz Ariztegi (Etxalar)	Malkorra goxot. (Elizondo)
Anabel Goienetxe (Etxalar)	Izarra okindegia (Lesaka)
Lourdes Lazkano (Bera)	Baztan Ferreteria (Elizondo)
Begoña Amiano (Elizondo)	Kaxula (Lesaka)
Begoña Igartua (Elizondo)	Errotazar (Bera)
M. Felisa Aleman (Elizondo)	Foto Mena (Elizondo)
Mª Pilar Elizagoien (Elizondo)	Maite lentzeria (Elizondo)
Milagros Lertxundi (Elizondo)	Martin harat. (Doneztebe)
Mª Josefa Ródenas (Elizondo)	Arkupe goxotegia (Iruirita)
Cristina Arregi (Elizondo)	Belzunegi (Elizondo)
Juana Dendarrieta (Elizondo)	Martiko (Bera)
Sara Gamio (Elizondo)	Foto Zaldúa (Elizondo)
Mª Jesus Gamio (Elizondo)	Nafarpres (Elizondo)
Rosa Galarregi (Elizondo)	Natura Etxea (Elizondo)
Antonia Jauregi (Elizondo)	Foto Mena (Doneztebe)
Tere Iriarte (Elizondo)	Zela Kirolak (Bera)
Avelina Barrenetxe (Elizondo)	Beatriz lurrin. (Elizondo)
Axun Ezkurra (Doneztebe)	Galarregi super. (Elizondo)
Nati Mitxelena (Doneztebe)	Mendi Mendian (Ibardin)
Carmen Muro (Doneztebe)	Alustiza lurrin. (Doneztebe)
Pilar Olalla (Doneztebe)	Martutzak (Bera)
Josefa Arrieta (Doneztebe)	CTV (Doneztebe)
Kontxi Bergara (Narbarte)	Herriko denda (Etxalar)
Maribel Altzuri (Sunbilla)	Ruiz Etxea (Elizondo)
Rakel Urtxegi (Sunbilla)	Txirrista (Doneztebe)
Sagrario Imaz (Sunbilla)	Coco's (Elizondo)
Mª Coro Rodríguez (Sunbilla)	Amiano okind. (Elizondo)
Consuelo Iturbide (Arizkun)	Artesana okind. (Elizondo)
Asun Anso (Oitz)	Mª Sol estankoa (Sunbilla)
Isabel Maritorea (Iruirita)	Mª Teresa estankoa (Bera)

➔ GOIZUETA

# Herriko Etxea konpondu nahi da nola edo hala

Aspaldiko proiektua berritu da eta negoziatzen ari dira Udala eta Nafarroako Gobernua

ESTEBAN AROZENA

1997-99 Hirurteko Azpiegitura Plangintzatik kanpo gelditu ondoren, 2001-2003koaren zain egoteko prest ez omen dago Udala. Azken hilabete hauetan Iruñean gogor negoziatzen ari dira korporazioakoak, ahal izanez gero aurten bertan Herriko Etxea konpontzen hasiteko. Horretarako, zaharkitu xamarra zegoen proiektua berritu da dagoeneko, eta bertan agertzen diren zenbakiaren arabera, lehenengo solairuan eginen di-

ren bulegoak, bigarren solairuko batzar-aretoak eta fatxada guzien apainketak 38 milioi pezetako aurrekontua dute.

Gaiaz aldatuz, esan behar da, apirilaren 7az geroztik Udalbiltzako kidea dela Goizuetako Udala, horrelaxe erabaki baitzuen aho batez udalbatzak osoko bilkuran.

Mirian Arozena idazkari berria

Udaletxetik atera gabe, aipagarria da baita ere, Artzan baserriko Mirian Arozenak bete-

ko duela hemendik aurrera Goizueta eta Aranoako Herriko Etxeetako idazkari postua, azken urte hauetan lan hori egin duena, Axun Ariztegi, bere herriko Udaletxean, Lasarten, lortu baitu lanpostua. Zuzenbidean lizentziatua izateaz gain, Herri Administrazioioko masterra egina du Mirianek. Euskara erabiltzeko ere ez du inolako arazorik izanen, EGA titulua eta 4. perfilaren jabe baita.

Truk txapelketako irabazleak

Umore Onak urtero



Leitzaldeko bertso-paper lehiaketan saritutako goizuetarrak Nafarroako beste eskualdetan bezala, Bertsozale Elkartek Leitzaldean ere bertso-paper lehiaketa antolatzen du urtero. Argazkian, lehiaketan sarituak suertatu diren Goizuetako neska-mutikoak ageri dira.

antolatzen duen truk txapelketa apirilaren 8an jokatu zen, 14 bikoteren partehartzearekin. Sari nagusiak bi trukalari beteranok jaso zi-

tuzten, Mañoli Loiartek eta Joxe Goizuetak, hain zuzen. Jaione Jimenez eta Jexux Mari Almandoz izan zituzten aurkari finalean.

➔ ARESO

# Drogei aurre egiteko liburua banatuko da

Gurasoei doan emango zaie teknikariari eskatuz gero

JUANA M<sup>a</sup> SAIZAR

Drogomenpekotasunaren prebentziorako programaren barnean *Lagunekin baratzean* izeneko liburua landu zen iaz eskolan. Hemezortzi ipuin ditu liburu honek eta aurten, material hori osatzeko gurasoen gidaliburuxka banatu da. Honen helburua, eguneroko bizimo-

duko egoerak landuz elkarlana egitea, umeak bere kabuz pentsatzen ikastea eta presioei aurre egitea da. Drogomenpekotasunari aurre hartzeko aukerak izanik eta bere burua estimatzen eta ezagutzen ikasiz gero, drogak gehiegikeriaz erabiltzeko probabilitatea txikiago izango du haurrak. Norbaitek material hau es-



**Neska-mutikoek bere burua estimatzen eta ezagutzen ikasiz gero, drogak gehiegikeriaz erabiltzeko probabilitate txikiagoa izango da, gurasoen artean banatuko den liburuak dioenez.**

Artxibokoa

kuratu nahi balu eskolako orientatzaileei edo drogomenpekotasunarako teknikariari eskatu eta materiala doan emango zaio.

Mus txapelketako irabazleak

Pake-Toki elkarterko 2000. urteko mus txapelketan Luis Layana eta Miguel Zabaleta

suertatu dira irabazle; azpitxapeldun, berriz, Luis Marzol eta Geno Telletxea. Apirilaren 8an jokatu zen finala eta gero afaria izan zuten.



LEITZA

# Drogomenpekotasunaren prebentziorako jokuak apirilaren 27an plazan


Teknikariak eta Leitza, Goizueta eta Aresoko Guraso Elkarteek antolatuta

JOSEBA AZPIROZ

Droga menpekotasunaren prebentziorako teknikariak eta Leitza, Goizueta eta Aresoko gurasoen elkarteek haurrentzako jokuak presatuko dituzte apirilaren 27an, ostegunerako. Honako egitaraua presatatu dute: Goizeko 11etatik 12ak bitarte, ginkana. Ondoren eta ordu bata bitarte, zuku lehiaketa; 1,30etatik 2,30etara, bazkaltzeko ordua (bakoitzak bere bokata eramanen du). 3,30etatik 5,30etara, jokuak izanen dira. Ondoren txokolatea banatuko da eta karaokea egingen da. Zortzi eta hamabi urte bitarteko gazteei zuzendutako programa honek bi helburu nagusi ditu: Aisialdirako alternatiba osasungarriak eskaini eta alkoholik gabeko edarien kontsumoa bultzatu.

Aingeru Mindegiak irabazi zuen Krosa

Aingeru Mindegia leitzarrak irabazi zuen apirilaren 9an burutu-tako Herri Krosa. 32 mi-



Maiatzaren 12an bukatuko da igerilekuak udan hartzeko proposamenak aurkezteko epea

Leitzako Udalak, udal-igerilekuen ustiapenaren bandoa argitaratu du. Aurtengo denboraldia ekainaren 1etik irailaren 15a bitarte izanen da. Lizitazio prezioa librea da eta proposamenak aurkezteko epea, maiatzaren 12an, eguerdiko hamabietan bukatuko da.

Artxibokoa

nutu eta 52 segundu behar izan zituen ibilbidea egiteko. Gasteizko Alberto Ibañez eta Antonio Bru beratarrak osatu zuten podiuma. Adin guzietako leitzarrek hartu zuten parte. Helduetan, Amaia Sagastibeltza zazpigarren izan zen. Adinekoetan, Angel Mari Juantorena seiagarren izan zen eta

Juli Sagastibeltza bosgarren. Iñigo Irazoki eta Saioa Sagastibeltza leitzarrek irabazi zuten gazteen artean.

Laburmetriak euskaraz

Hilaren 27, 28 eta 29an, hainbat pelikula eta laburmetrai ikusi ahal izanen ditugu zinemaren euskaraz. Euska-

ra zerbitzuak antolatutako emanaldi hauen hasiera, hilaren 27an, osteguna, arratsaldeko 8etan izanen da. Koldo Almandozek zuzendutako «Adar bakar» eta Axier Altunak zuzendutako «40 ezetz» (zati batzuk Garagartza baserrian grabatu zituzten) eta «Txotx» laburmetriak ikusi ahal izanen

den ditugu. Ondoren bi zuzendari hauekin hitz egiteko aukera izanen da. Ostiralean berriz, gaueko 10,30etan «Wallace & Gromit» animaziozko filma eta «Sarabe» laburmetraia eskainiko dira. Eta larunbatean, arratsaldeko 7,30etan, «Jone igo zerura» pelikula emanen da.

Gerardo Caballero zinegotzi berria

Martxoaren 22an egindako batzarrean Gerardo Caballero zinegotzi izendatu zuten. Dakizuenez, ilbeltzan dimisioa aurkeztu zuen Flora Mitxelena, UPNko zinegotziaren ordez izendatu dute. Mendi, Hirigintza eta Herrilanak, Giza Mugimendu-Gazteria, Euskara, Turismo eta Hezkuntza batzordeetan parte hartuko du. Gainera, UEMan, Oinarritzko Gizarte Zerbitzua Kudeatzeko Leitza, Goizueta, Areso eta Aranako Mankomunitatean eta Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitatean udal ordezkari izanen da.

## PIROTEKNIA

PIROTEKNIA ORDEZKARITZA

Nafarroan, Espainian eta Italian

- ☛ Suziriak
- ☛ Zezensuzkoak
- ☛ Bomba japoniarrak
- ☛ E-I Su artifizialen kolezioak

## FIESTA

Rio Alzania, 16 behea • IRUÑA

Tel: 608 77 86 13 • Fax: 948 24 67 05

Mirari  
Pre-mama moda

Barrendik eta kanpotik  
janzten zaitugu

Serapio Mugika, 14 ¥ IRUN ¥ € 943

GAZTELU  
ITURGINTZA

KALEFAKZIOA

Elgoien 32  
Tfnoa: 948 510 086  
LEITZA

BAZTAN


# Gastronomiari lotutako Kultur Astea egin dute Baztan Ikastolan

Garai bateko errezetak bilduz liburuxka argitaratu nahi dute

TTIPI-TTAPA

Garai bateko gastronomia eta sukaldaritza aukeratu du aurten Baztan Ikastolak urteroko Kultur Astea egiteko. Joan den astean egin ziren ekitaldietan, guraso, ikasle eta irakasleek hartu zuten parte. Amaia Meoki Plaza lekaroztarrak elikadurari buruzko solasaldia eman zien gurasoei. Eskisaroi jatetxeko Pello Garmendiak sukaldaritza ikastaroa eman zien gurasoei. Gure inguruan ohikoak diren jakiak prestatzen ikusi zuten, zerri patak, txapelketak eta gisa horretakoak. Gurasoek ez ezik haurrek ere izan zuten sukalde kontuetan trebatzeko aukerarik. Haur Hezkuntzako 43 ikasleek arto-opila edo taloa egiten ikasi zuten, gero txokolatea edo gasnarekin jateko.

Lehen Hezkuntzan ari diren 91 ikasleek berriz, errezeta zaharrak eta plater tipikoak bilduten aritu dira. Adineko jendearekin egon dira, aitatxi-amatxiek, errezeta horien berri jakiteko. Gerora, errezeten bilduma liburuxka batean argitaratzeko asmoa dute Baztan ikastolan, «horrela, galdu ez daitezten».



**Amaiurko Gaztelu elkarteko mus txapelketa**  
Apirilaren 1ean jokatu zen Amaiurko Gaztelu elkarteak antolatutako mus txapelketaren finala. Irabazle suertatu ziren Mendialdeko Toni eta Josetxo anaiak. Finalean Migel Joxe Ariztia eta Juan Mari Alemaneri irabazi zioten. Hirugarren saria Patziko Bengoetxea eta Jose Etxeberriarendako izan zen eta laugarrena, Frantzisko eta Agustin Ariztia anaiendako. Sariak banatu bezain fite, 40 lagunek afaldu egin zuten elkartearen.

Baztan-Malerrekako XIV. bertso-paper lehiaketa

Malerreka eta Baztango bertsolari gazte txoei zuzendutako XIV. bertso-paper lehiaketa sariak banatu ziren apirilaren 12an Lekarozko institutuan.

Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailako ikasle artean, Beintza-Labaiengo eskolako Oihane Mindegiak irabazi zuen. Baztan ikastolako Adur Otxandorena eta San Francisco Javier

ikastetxeko Ekhine Etxeberria eta Maite Jaurena ere sarituak suertatu dira.

Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasle artean, berriz, Baztan ikastolako Oihana Oterminek irabazi du lehendabiziko saria. Ikastola bereko Miriam Goñi eta Estitxu Arraztoa; San Francisco Javier ikastetxeko Tomas Laborra eta Adrian Garmendia, Beintza-Labaiengo Eneko Eratsun eta Gartzaingo ikaste-

txe publikoko Anais Peña eta Teresa Maritorenak ere jaso dute beraien saria.

Arraizoko saihebiderearen inaugurazio ofiziala

Astearte honetan egin da Arraizoko saihebiderearen inaugurazio ofiziala. Udal ordezkariekin batera, Jose Ignacio Palacios, Herri-lan, Garraio eta Komunikabidetako kontseilaria etorri zen Nafarroako Gobernutik.

flash

- ❖ Baztango kontuak Mariano Izetaren eskutik Mariano Izeta Elizalde idazle baztandarrak «Baztango kontuak» izeneko bere azken idazlanaren aurkezpena egin zuen apirilaren 8an. Baztango bitxikeriak eta garai bateko istorioak bildu ditu liburuan Marianok.
- ❖ Udako Euskal Unibertsitatea Balleko Udalak 50.000 pezetako dirulaguntza bideratu du Udako Euskal Unibertsitatean parte hartu nahi duten ikasle eta langabetei laguntzeko.
- ❖ Kirol elkartearen egoitza Carlos Gomez-Cuadrado Uriarte arkitektoak egingen du kirol elkartearen egoitza izanen den eraikuntzaren proiektua. Arkitektu berak egingen du Elizondoko Kuarteleko-zelaiko parkea moldatzeko aitzinproiektua.
- ❖ Lekarozko igerilekua Uda honetan Lekarozko igerilekuetako mantenimendu eta garbiketa lanen zerbitzua hartzeko deialdia egin du Balleko Udalak. Proposamenak maiatzaren 12an baino lehen aurkeztu behar dira udal bulegoetan.

*Eskisaroi jatetxea*  
Jaime Urrutia, ☎ 948 580 013  
**ELIZONDO**

**Gierresenen**  
**OSTATU - JATETXEA**  
Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa  
Iturriotz Auzoa • ☎ 592043 • **ORNOZ-MUGAIRI**

**ARROPA DENDA**  
**Gazteendako era guzietako arropa**  
**Lanerako arropa**

BAZTAN

# Zikiro eta gasna lehiaketak egingen dira apirilaren 28ko Udaberriko Feria egunean

## Goiz eta arratsalde bertako produktuak erakutsiko dira

TTIPI-TTAPA

Apirilaren 28an, or-zizalarekin, ospatuko da Balleko Udalak, Bertizko Partzuergo Turistikoaren, Cederna-Garalur elkartearen eta Nafarroako Rural Kutxaren laguntzaz antolatutako Udaberriko Feria.

Goizeko 9etan hasiko da Feria Elizondoko Merkatu Plazan. Zikiro lehiaketa ere egingen da ordu berean. 10etan zikiro erretzearen erakustaldia egingen da eta baztan-zopak dastatzeko aukera emanen da. Goizeko 11etatik 1,30etara bertako produktuen Feria izanen da ikusgai Foru Plazan. 11etan txistulariek emanaldia eskainiko dute. 11,30etan gasna lehiaketa burutuko da eta aurtengo gasnaren aurkezpena egingen da. 12,30etan sari ezberdinak banatuko dira. Arratsaldeko 5etatik 8etara berriz ere zabalduko da bertako produktuen feria. 5,30etan Baztango dantzariak bere emanaldia eskainiko dute. Arratseko 8etatik 11etara, berriz, nahi



Zikiro lehiaketa izanen da apirilaren 28ko Udaberriko Feria egunean Elizondon.

Artxibokoa

duen guziarendako dantaldia izanen da.

Ibilgailu pisuen joan-etorria debekatuko da bortz besta egunetan

Euskadiko Elkartea Autonomoan eta Frantziako galerazia dute ibilgailu astunek igandetan ibiltzea. Baina egun baztuetan arazoak suertatzen dira, Euskadin bes-

ta izanik Frantziaren lan eguna denean batez ere. Egun horietan, Iparraldera joan behar duten kamioiek Nafarroatik igaro behar dute nahitanez. Horretarako, N-121-B errepidea erabiltzen dute gehienek (N-121-A errepidean ezin baitute Enderlatsatik aitzinera segitu), eta Oronoz eta Dantxarinea arteko errepide zantian izugarritzko trafi-

koa sortzen da. Orain arte, Oronoz, Arraioz, Irurita eta Elizondon sortzen ziren gorabehera handienak.

Hori kontuan hartuz, Trafiko Zuzendaritzak Frantziaren lan egun diren Ortzegun eta Ortziral Saindua, Santiago eguna eta Konstituzio eta Inmakulada egunetan N-121-B errepidea erabiltzea galerazi die kamioiei eta 7.500 ki-

lotik goiti eramaten ahal dituzten ibilgailu astunei.

24 ordu sute baten abisurik eman gabe

Martxoan Aritzakun inguruan izandako sutearen berririk ez zuen inork eman 24 orduz. Honela, su-hiltzaileak ailegatu zirenerako ehun hektarea kixkali ziren, horietatik hamar babestutako eremuan. Oronozko bonberoei eta Balleko Udalak beraien harridura erakutsi dute gertaera honen aitzinean.

Baztan futbol taldea Preferentera jautsi da

Gan den urteko paza atsekabea bihurtu da denboraldi honetan Baztan futbol taldean. Iaz, liga ederra egin ondotik, igoera promozioa jokatu eta hirugarren mailara igoatea lortu zuen, baina aurtun, liga akitzeko oraindik bortz partidua falta zirela kategoria galdua zuen. Heldu den denboraldian Preferenten jokatu dute baztandarrek.

**ORDOKI** *likoreak*

Tel.: 948453410  
Fax: 948453378  
**ARIZKUN**

**ERRETEGIA**  
Parrilan egindako haragi eta arrainak

**IPINGI** ZATOZ ETA IKUSI  
Santiago 88, ☎ 948 580939  
ELIZONDO

**UDABERRIKO ARROPA**  
OIHALAK, KONJUNTOAK,  
JERTSEAK, GONAK...  
ETA KONPLEMENTOAK

**Carlos Garaikoetxea Etxenike**

abokatua  
aseguru orokorrak

☎ 948 581468  
948 580433 (etxekoa)  
Frantziarako etorb. 3  
Ameztialde 3B • ELBETE



# Euskal Herriko Idazleen Biltzarra Bazko Astelehenez iraganen da kiroldegian

Gaztetxeak antolatutako kontzertua apirilaren 30ean izanen da

ANA MARI ETA FRED

Bazko Astelehenez, apirilaren 24an, Sarako Turismo Bulegoak eta Euskal Kultur Erakundeak antolaturik Euskal Herriko Idazleen XVII. Biltzarra iraganen da kiroldegian. Ate idakitzea goizeko 9ak eta erdietan egingen da. Urtero bezala 120 bat idazle etorri beharrak dira beren liburuak saltzeko, bai izenpetzeko. Egun osoan haurren xokoa antolatua izanen da, bideoak ikusteko aukerarekin ttikienezat. Margo eta argazki erakusketak ere eskainiak izanen dira. Hala nola herriko Jacques Antz-ek Sarako argazkiak erakutsiko ditu, 1900 urtetik gaur arte. Arratsalde ondarrean, Herriko Etxean Mixel Itzainak mintzaldia emanen du Mixel Labeguerie zenari buruz.

Gaztetxearen kontzertua apirilaren 30ean

Apirilaren 30ean, igandearekin, eta urte guziz egiten den bezala kontzertua antolatu du Gaztetxeak. Gazteek ikastolako burasoen laguntza ere badute. Bertzalde, hemendik laguntzerat deitzen dituzte borondate oneko presuna guziak, egiteko frango baita, bai aintzinetik, bai kontzertu berean, bai eta ondotik ere.

Gaueko 9etarik goiti, ondoko taldeak arituko dira: Inguma, gure eskualdeko metal taldea; Kafha, aurtengo Euskadi Gaztea irratia-



## San Josepe eskolako ikasleak Parisen barna

San Josepe eskolako CM1 eta CM2 gelako ikasleak hiru egunez Frantziako hiriburua ezagutzera joan ziren. Hala nola, Disneyland, Jakitate Hiria, Notre Dame katedrala eta asmatze jauregia bisitatu zituzten. Bidai ederra egin zuten baina saratar gazte hauek kontent itzuli ziren herriko aire ona berriz senditzera.

ren maketa lehiaketaren irabazlea; Godzilla, Baionako taldea; Watcha, Frantziako sekulako arrakasta lortzen ari dena eta gau hortako talde ezagunena: Hamlet, Madril aldeko metal taldea.

Sartzea 40 liberetan izanen da 11ak aintzin agertuko direnentzat, eta 50 liberetan hortik goiti etorriko direnentzat.

Errugbi taldeak sasoina bururatu

Errugbi taldeak sasoin ona egin baldin bado ere, ez da finalerart sartu ahal izan, Bardozeko taldeak kanporatu baitu. Joaneko partida Bardozen jokatu da eta gureak irabazten hasi baldin baziren ere, hondarrean 18 punduko aldearekin galdu dute. Aste bat berantago, bi

taldeak Animaniako zelaietan lehiatu dira. Saratarrek ahalegin guziaz eginik ere, puntu bakar batez irabazi dute eta, ondorioz, txapelgotik kanpo gelditu dira.

Bigarren taldearentzat ere aurtengo denboraldia bururatu da, Hossegorreko taldeak final laurdenetan kanporatu baitu (14-17). Hemendik goiti gure ba-

surdeek asti guzia izanen dute pausatzeko eta heldu den urteko sasoinaren prestatzeko.

Posta eta euskara

Postak euskarazko txkeak egitea ukatzen du; bai gehiago ordainarazten kopuru handiko igortzeak euskaraz idatziak izateagatik. Baina aipatu behar da gure herriko posta bulegoan euskararen alde indar batzuk hasi direla egiten. Orain, bai ordutegia bai eskaintzak euskaraz hartzen ahal baitira. Zorionak Sarako postari eta hola segi!

Plataformaren deia

Azken TTIPI-TTAPAN euskal preso politikoen aldeko sustengu plataformaren berri eman ginen. Plataformaren gogoia deia zabaltzea da, sinatzaile berriak hurbilartzeko. Bertzalde sinatzaileeroi orotarazten da elgarretaratzeak egiten direla hamabortz egunetarik. Ondokoa, apirilaren 21ean, ortziralarekin, arratsaldeko 7etan Herriko Etxearen aitzinean egingen da.

SAIOA  
ILEAPAINDEGI

MISTOA  
IBARDINen

Benta Biok-en,  
Benta Mirentxuren  
ondoan

☎ 0034948630424

Kontzertua  
Saran  
Apirilaren 30ean

Hamar sarrera  
zozketatzen ditugu  
ttipi-txartela dutenen artean  
Deitu 948 63 11 88  
telefonora



Zugarramurdiko karretera 3. Km  
☎ 948 599 131 - URDAZUBI

SENPERE

# Martxoaren 25ean presentatu zen euskal presoen aldeko Plataforma Euskal Herri osoko artisten obrak liburu batean bildu ditu Hatsak

FRANCK DOLOSOR

Martxoaren 25ean presentatu zen 31 senpenterrek osatzen duten plataforma. Euskal presoen hurbiltzea galdegitea eta hortaz informazioa zabaltzea da talde hunen xede nagusia. Partaideek ez dute begi onez ikusten presoek jasaten duten sakanaketa, Euskal Herri-ko urrun izanez beren familiek gastu handiko bidai luzeak egin behar dituztelako.

Orain arte hiru bildura egin dituzte. Herriarrak eta bozen kari presentatzen diren hiru zerrendetako ordezkari batzuk aurkeztu dira. Hemendik goiti elkarte guzietan harremanak sortu nahi dituzte eta herriko kontseiluan hurbiltzeari buruzko mozioa presentatuko da.

## Turismo Bulegoa

Bilan baikor eta proiektu andanaz mintzatu da turismo bulegoa egin berri duen biltzar nagusia. Milaka jende uda guziz heldu dela herrirat aipatuz, jakinarazi da turismo saloin aintzetan parte hartzen ari direla herriko ordezkariak. Senpereko promozioa egiten da Donibane Lohitzuneko bulegoak Tolosan zabaltzen dituen erakustokietan. Publizitatea egiten da ere Madril, Bilbo, Paris, Nantes, Brusela, Montreal eta Colmareko turismo saloinetan udaberri hontan. Senpereko turismo bulegoa internet sarean



31 senpenterrek osatzen dute euskal presoen aldeko plataforma.

sartzekoa da laster. Bizikleta bidexketan eta biderrak nagusian, bide seinale berriak emanen dituzte aski fite.

## Zuhaitz landatzea

Gazteek zuhaitz landatze eguna zuten martxo hastapenean. Eskoletako ikasleek amerikar-altzak landatu zituzten Kantia aldean. Sentsibilizazio eguna ONF eta Herriko Etxeak urtero egiten dute haurrek ikus dezaten zer desmasi gertatzen diren oihanetan suteak direlarik ala autoak hor gaindi ibilki direlarik.



Olerkarien biltoki izan da aurten ere Oxtikenea Martxoaren 19an bigarren aldikotz 40 olerkari elkartu ziren Hatsaren inguruan. Euskarazko olerkiak bilduma batean agerrarazi ditu Hatsak.

## flash

- ❖ Drogaren aurkako eguna Apirilaren 28an, Ibarrungo Inharrean drogaren aurkako eguna ospatuko da arratsaldeko 2etarik goiti.
- ❖ Liburuaren Eguna Maiatzaren 13an Elkartetxean Liburuaren Eguna iragaitzeko da.
- ❖ Aste komertziala Aurtengo Aste Komertziala maiatzaren 22 eta 27a artean eginen dute herriko saltzaileek batasun berriaren inguruan.

Kutxa Kutxa Kutxa  
Kutxa Kutxa Kutxa Kutxa

**Kutxa** *Kidetzak berri bat!*  
7, Portuko Karrika-64700 Hendaia  
Tel. 0559203274 Fax 0559203237

**RESTAURANT MIGUEL**

Ongi zaindutako sukaldaritza  
Menuak aukeran

**MIGUEL JATETXEA**  
Ibardingo Lepoa  
☎ 948 631209

URDAZUBI-ZUGARRAMURDI

# Xareta proiektua ezagutzera etorri dira Frantzia eta Kataluniako ordezkariak

Bordak moldatzeko material egokia erabili beharko da Urdazubin

MARGARI ETA KORO

Xareta proiektua hurbildik ezagutzeko asmoarekin, gan den martxoaren 31n Frantziako Garona eta Pirinio Atlantikoko buruzagi batzuk eta Kataluniako Vall d' Araneko bertze batzuk hemen izan genituen bisitari. Proiektua ezagutu ondoren, Sarako lezeak ikusi zituzten eta honekin batera Zugarramurdira doaien Pottoka Bidea ere bai. Gero, Urdazubin, Andres Diharasari alkateak Xareta Eguna besteren berri eman zien eta promoziorako erabilzen diren liburuxkak ere ezagutu zituzten. Ikusten denez, Xareta proiektu honetan apostu egiten ari direnek lan baliagarria egiten ari dira, kanpotik ere aztertzera etortzen baitira.

Urdazubiko bordak moldatzerakoan material egokia erabili beharko da

Urdazubiko Udalak ingurumenarekin eta paisaiarekin zerikusi haundia duen akordioa



Titiriteroen topaketa

Arrakasta haundia izan zuen Zugarramurdira apirilaren hasieran ospatu zen Eskual Titiriteroen III. Topaketak. Eguraldiak lagundurik jendealde polita bildu zen herrian eta larunbat goiz eta arratsalde, egun osoz denetara bederatzi talde ikusteko aukera izan genuen (hamargarrenak huts egin zuen). Gaupasak eta bazkariak uste baino jende gutiago bildu zuten, baina mamia titiriteroak eta txotxongiloak zirenez, antolatzaileak gustora gelditu dira.

Arg.: Gara

hartu du: Udal Planeko eraikuntzen ordenantza artikulu bat aldatzea. Orain arte bordak moldatu edo haunditzerakoan edozein material erabili izan da (uralita eta halako gisakoak) eta hemendik

aintzina betiko bordaren itxura gordetzen duten materialak erabili beharko dira.

Eskea TTIPI-TTAPAREN gastuak ordaintzeko Asteotan etxez etxe dei-

tzen ari dira TTIPI-TTAPATIK. Datuak berritzeaz gain, Urdazubi eta Zugarramurdira TTIPI-TTAPA banatzeak sortzen duen gastua ordaintzen laguntzea eskatzen da (2.000 Pta. urteko). Gaur egun, Urdazubin

89 aldizkari eta Zugarramurdira 83 banatzen dira aldiro. Bertze herrietan bezala, TTIPI-TTAPAK udalei gastua ordaintzeko eskaria egin die, etxeetan debalde banatu ahal izateko. Urdazubiko Udalarik 229.862 eskatu zaito, eta ia 50.000 pezetako dirulaguntza eman zuen, eta Zugarramurdira 149.410 eskatu zaito eta ia 10.000 pezeta eman zituen. Bistan denez, aurtun ere laguntza beretsuak biltzen badira, ez da nahikoa izanen aldizkariak sortzen duen gastua estaltzeko, eta horregatik hasi da etxez etxe dirua galdegiten.

AKELARRE ELKARTEA

Lehenengo urte batzutan bezala, iduri du aurtun Zugarramurdira Akelarre elkarteak Herriko Etxeak ordaintzen ez duenetik zati bat bederen ordaintzeko manerarik ba ote duen begiratuko duela maiatz hasieran eginen duen bilkuran. Ikusi behar orai, gainerakoa Herriko Etxeak ordainduko duen. Horrela bada, jendearentzat kitto.

**Alberto RETEGI**  
abokatua

Altzate 17  
BERA  
☎ 948 630 763

FUNERARIA ZERBITZUAK  
**Lesaka-Donestebe**



**MALDAERREKA, S.L.**

24 orduko zerbitzua  
Iruñea-Donostia-Irungo ospitaletatik edozein herritara trasladoak  
Tfnoa: 948637404 • LESAKA  
Tfnoa: 948450475 • DONEZTEBE

Baztanen...



LOREDENDA • GARDEN CENTER

**ESTHER FUNERARIA**

Hilkutxak • Hilautoak • Eskelak •  
Dokumentazioak  
Beztitzeak, etab...

Aritzondo, Bergara auzoa • Tfnoa: 948580971 • **ARIZKUN**  
Errepide Nagusia • Tfnoa: 948592200 • **NARBARTE**  
Jaime Urrutia 39 • Tfnoa: 948580668 • **ELIZONDO**

24 orduko zerbitzua

Eta Iruñean...



**IRACHE TANATORIOA**

Iratxe Monastegia, 60  
Tfnoa: 26 09 54



## EZKONTZAK

**Angel Ricardo Etxarte Subizar** eta **Ana M<sup>a</sup> Juanenea Etxeberria**, Lesaka eta Doneztebekoa, martxoaren 12an.  
**Oscar Bertiz Subizar** eta **Nekane Orbegozo Agirre**, Elizondo eta Doneztebekoa, apirilaren 1ean.  
**Jose Angel Murua Ruiz de Gauna** eta **Garbiñe Elizaintzin Oharriz**, Legazpi eta Gartzaingoa, martxoaren 31n.  
**Jose Javier Juanikotena Iturralde** eta **M<sup>a</sup> Angeles Larralde Elizalde**, Arraioz eta Arizkungoa, apirilaren 3an.  
**Marcos Irigoien Saiz** eta **Garbiñe Elizalde Goñi**, Elizondo eta Elbetekoa, martxoaren 18an.  
**Pello Mirena San Millan Bergara** eta **Sonia Sobreviela Irigarai**, Elizondo eta Berakoa, apirilaren 9an.  
**Marie Angèle Agerre** eta **Jean Michel Sarie**, Sarakoak, martxoaren 31n.  
**Maidier Otaño** eta **Ramuntxo Santesteban**, Ziburu eta Senperekoa, apirilaren 1ean.  
**Béatrice Darancette** eta **Manuel Altzibar**, Donibane Lohizunekoak Saran, apirilaren 1ean.

## JAIOTZAK

**Patxi Claudio Azpiroz**, Leitzakoa, martxoaren 26an.  
**Jon Mattin Sukuntza Telletxea**, Leitzakoa, martxoaren 31n.  
**Goyo Jesus Mindegia Eleta**, Doneztebekoa, martxoaren 22an.  
**Xabier Bengoetxea Rekarte**, Doneztebekoa, martxoaren 27an.  
**Unai Ibarra Perez**, Elgorriagakoa, martxoaren 3an.  
**Oihana Larralde Olazar**, Elgorriagakoa, apirilaren 2an.  
**Raquel Moran Barco**, Berakoa, martxoaren 9an.  
**Janire Martin Goia**, Berakoa, martxoaren 26an.  
**Maidier Matxikote Etxeberria**, Berakoa, martxoaren 30ean.  
**Ibon Irastortza Urdaniz**, Berakoa, martxoaren 30ean.  
**Luken Erkizia Solana**, Berakoa, apirilaren 6an.  
**Pablo Dorregarai Oiaregi**, Irurita, martxoaren 26an.  
**Sarai Maritorea Etxenike**, Berroetakoa, martxoaren 24an.  
**Adrian Burgete Goienetxe**, Elizondokoa, martxoaren 25ean.  
**Antton Irigoien Urrutia**, Anizkoa, martxoaren 24an.  
**Maria Urra Fernandez**, Elizondokoa, apirilaren 1ean.  
**Virginia Goienetxe Gonzalez**, Elizondokoa, apirilaren 3an.  
**Unbe Buyón Sadaba**, Elizondokoa, martxoaren 24an.  
**Mikele Etxekolonea Diez**, Zubietakoa, apirilaren 9an.  
**Araia Huitzi Sanchez**, Goizuetakoa, martxoaren 30ean.  
**Adrien Thomas**, Sarakoa, apirilaren 2an.

## HERIOTZAK

**Agustina Arretxe Ezeiza**, Leitzakoa, apirilaren 1ean, 93 urte.  
**Prudencio Ganboa Urroz**, Berakoa, martxoaren 18an, 95 urte.  
**David Dominguez Fernandez**, Berakoa, martxoaren 29an, 72 urte.  
**Sabina Beloki Alustiza**, Berakoa, apirilaren 5ean, 87 urte.  
**Segundo Barandian Goikoetxea**, Oronozkoa, martxoaren 28an, 71 urte.  
**Juan Etxenike Igoa**, Zigakoa, apirilaren 5ean, 86 urte.  
**Rosario Goñi Salaburu**, Lekarozkoa, apirilaren 6an, 87 urte.  
**Jeannot Añorga**, Sarakoa, apirilaren 1ean, 65 urte.  
**Iñaxi Portu Lasaga**, Etxalarkoa, apirilaren 11n, 99 urte.



## Bidali

TTIPI-TTAPA

**herritik kanpo  
bizi diren lagun edo  
familiakoei**

Bakar bakarrik bidaltze gastuak ordaindu behar dira.  
Eskatu informazioa.

☎ 948 631188

## Xabier LERTXUNDI EIZAGIRRE

2000ko martxoaren 15ean Zaragozan zendu zen mendigoizale gaztearen sendiak: bere aita Bautistak, bere ama Pilarek, bere anai-arreba Xanti eta Maribelek eskerrak eman nahi dizkizuegu momentu latz hauetan gurekin izandako familiako, lagun eta herritar guziei.

Irurita, 2000-III-15



## German CASTILLO CUETOS

Santander en la noche  
en la orilla del agua,  
del agua que en los muelles  
escupe verde y mala  
Santander en la noche,  
en mi recuerdo,  
en la orilla del mar  
en mi nostalgia.

BETI GURE ARTEAN IZANEN ZARA

**ZURE FAMILIA**

Bera, 2000-03-24

DATUAK.....

1 Jon Bru beratarrak lehen urtea du Banestoko afizionatueta taldean. Aurten arte Caja Rural taldean arituda.

2 Euskaldun txapelketako liderra da, orain arteko lasterketa gehienetan aitzineko postuetan akautu baitu.

3 Bosgarren urtea du afizionatueta eta heldu den urtean profesional bezala aritzea espero du.

4 Nekazaritza Injineritzako bosgarren kurtsoa ikasten du Iruñean. «Nahiko lasai hartzen dut eta egia erran behar bada, denbora gehiago eskaintzen diot bizikletari ikasketei baino».

TESTUA:  
AITOR AROTZENA  
ARGAZKIA:  
JON ALTZUGUREN

Jon BRU Berako txirrindularia

# "Heldu den denboraldian profesionaletara salto egitea espero dut"

Denboraldi hasera ona egin du Jon Bruk. Izen-abizenak laburrak izanagatik, palmaresa gero eta zabalagoa du Berako txirrindulariak eta profesionaletara salto egiteko ametsa gero eta hurbilago ikusten du. «Ilusioak aurtengo denboraldi honetan jarriak nituen eta ongi hasi naiz: bortz podium egin ditut, seigarren postu bat... ez dago gehiago eskatzerik. Urteik urtera gehiago pentsatzen duzu profesionaletara pasatzean. Nire ideia heldu den urtean saltoa ematea da. Afizionatutan segitu behar bada segituko dugu bertze urte batez, baina ez aunitz gehiago». Euskaldun txapelketan lider sendoa da Banestokoa, baina hori egun batetik bertera aldatzen ahal dela dio: «Hirugarren sailkatuarekin diferentzia nabarmena dut, baina bigarrenari, Zandio-ri, ez horrenbertze. Berak puntuak hartuz gero eta nik ez, aldatuko litzateke sailkapena».

Euskaldun txapelketan Euskal Herriko 35 probetan parte hartzen du ten elite eta 23 urtez beheitiko afizionatu guzien sailkapenak puntuatzen dira. Lehendakari txapelketan, berriz, 21 urtez beheitikoena: «Hori orain dela hiru urte irabazi nuen».

Aurten Caja Ruraltik Banestora igaro da Bru, baina bere ustez horrek ez du zerikusirik izan denboraldi hasera bikain honetan: «Iaz, alergia nituela eta, txertoak hartu behar izan nituen. Horregatik ez nintzen sobera fin ibili. Aurten tratamendua utzi dut, baina aurre denboraldian ez dut deus berezirik egin».

«GURPIL EGOKIEI SEGITZEN IKASI DUT»

Bortz urte ditu txirrindulari beratarrak afizionatueta eta hori nabari du: «Lehendabiziko urtean ihesaldi guzietara ateratzen zara, baina urteen poderioz, gurpil egokiei segitzen ikasten duzu, zein diren

► "Lehendabiziko urtean ihesaldi guzietara ateratzen zara, baina urteen poderioz, gurpil egokia segitzen ikasten duzu, zein diren arriskutsuak eta zein ez."



«Etapa luzeetan, talde ttikian egiten diren sprintetan ongi moldatzen naiz»

arriskutsuak eta zein ez... hori denborak erakusten dizu». Lasterketa aunitz sprintean irabazi baditu ere, ez du bere burua sprinter hutsa bezala ikusten: «Bizkor xamarra naiz, baina talde ttikian ailegatuz gero. Lasterketa luzea bada eta azken metroak maldan goiti baldin bada, orduan eta hobe moldatzen naiz azken sprintean. Igoera luzeetan ez naiz ongi moldatzen, nahi ditut mendilaburrak edo goiti eta

beheiti egiten duten probak». Egun bakarreko lasterketetan ederki ibiltzen bada ere, aste beteko itzulietan ez da hain ongi moldatzen: «Ongi errekuuperatzea izaten da funtsezkoa eta nik, orain arte ez naiz ongi moldatu. Halere, iaz itzuli bateko azken etapara, etapa nagusia gaidira, orduan eta hobe moldatzen naiz azken sprintean. Igoera luzeetan ez naiz ongi moldatzen, nahi ditut mendilaburrak edo goiti eta

# Afizionatuetako taldea errepideratuko du Leitzako Guratz-Mendi elkarteak

- Eva-Bearzun Palplastic taldeak hamabortz txirrindulari izanen ditu
- Luis Vicente Otin eta Andres Orbegozoren esanetara ariko dira

**AITOR AROTZENA**

Martxoaren 31n aurkeztu zen Leitzako Basakabi hotelean Luis Vicente Otin leitzarrak eta Andres Orbegozok zuzenduko duten Eva-Bearzun Palplastic afizionatu mailako txirrindulari taldea. Ekitaldian, taldeko txirrindulari eta zuzendariekin batera, txirrindularitza eta pilota munduko kirolari famatuak izan ziren, bertzeak bertze Pruden Indurain, Peio Ruiz Cabestani, Iñigo Chaurreau, Jose Luis Arrieta, Asier Olaizola pilotari goizuetarra eta Gaztelu erremontelari leitzarra.

Eva-Bearzun Palplastic taldea talde umila da, baina errepide guzietan duintasunez atarako direla adierazi zuen Andres Orbegozo zuzendariak: «*Irabaztea edo podiuma egitea ere oso zaila dago, baina txirrindulariek esperientzia hartzen joatea eta, batez ere, lagun talde bat osatzea da gure helburua. Lehenbizilasterketak bukatzerat arako gara eta gero ikusiko dugu zer egiteko gai garen*».

PISTA GAINEKO  
EUSKADIKO TXAPELDUNA  
TALDEAN

Aurkezpen ekitaldian hamabi bertzerik ez baziren ere, hamabortz txirrindularik osatuko dute Eva-Bearzun Palplastic taldea. Horien artean, nabarmenena seguraski Oreretako Sergio Martin Maes 22 ur-



**Profesionalen aholkuak aditu zituzten Eva-Bearzun Palplastic taldeko txirrindulariek aurkezpen ekitaldian**

Argazkia: Aitor

## EVA BEARZUN - PALPLASTIC

Txirrindularia	Herria	Adina	Lehengo taldea
David Abaurrea	Barasoain	19	C.C. Tafallés
Jose Javier Diaz	San Adrian	23	Apetitosa
Felix Egues Perotxena	Lesaka	25	Apetitosa
Eneko Fernandez Gaztañaga	Ibarra	25	Apetitosa
Jorge Iruetagoiena	Mutriku	20	Apetitosa
Miguel Jimenez Vara	San Adrian	21	Apetitosa
Miguel A. Jimenez Azparren	Lizarra	19	C.C. Estella
Angel Lopez Guerra	Huarte	21	Apetitosa
Sergio Martin Maes	Orereta	22	Apetitosa
Jorge Ruiz Etxeberria	Lizarra	25	Apetitosa
Pedro Jose Boran	Zaragoza	20	Apetitosa
Eneas Aristi Irueta	Lekeitio	21	Iturriaga
Aitor Huarte	Eratsun	22	Apetitosa
Iñaki Monreal	Barañain	22	Telcom
Raúl López	Huesca	21	Intersport

**Zuzendariak:** Andres Orbegozo eta Luis Vicente Otin

**Laguntzaileak:** Aitor Ansotegi eta Kexus San Emeterio Garmendia

teko txirrindularia da, gaur egun pista gaineko Euskadiko txapel-duna baita, Keirin modalitatean eta Anoetako Pistako Challengean hirugarrena izan da sailkapen orokorrean. Es-

kualdeko bi ordezkari izanen dira, Felix Egues lesakarra eta Aitor Huarte eratsundarra. Taldeak laugarren urtea betetzen du aurten eta txirrindulari gehienak iazko berak dira, Appetitosa tal-

dekoak, alegia. Luis Vicente Otin leitzarrak adierazi zuenez, «*giro polita dago txirrindularien artean eta hori garrantzitsua da uste-gabekoren bat eman ahal izateko*».

👉 Felix EGUES

## «Pisua jautsi dut eta karrerak hobe akautzen saiatuko naiz»

Txirrindulari bitxia da Felix Egues lesakarra. Eskubaloian, saskibaloian edo futboleant aritu ondotik, iaz hasi zen txirrindularitzan serio. «*Beti izan dut gustoko bizikleta. Zikloturista gisara ibiltzen nintzen eta joan den urtean Otineri galdetu nion taldean hasten ahal nintzen eta baiezkoa jaso nuen*». Urte gogorra izan zen Eguesentzat, pisu soberarekin hasi baitzen. «*Karrerak akautzeko eta aitzinean ibiltzeko finfina egon behar duzu. Denboraldi bukaeran pisu guttiago nuen, baina halere sobera*». Aurten pisua jautsi du eta hobekixiago ibiltzea espero du: «*Joan den urtean egindakoa hobetu nahi dut. Esperientzia hartu dut eta horrek aunitz balio du*».



**Felix Egues**



## AGENDA EGUNEZ EGUN

### TOPAKETAK

#### BAZTAN-BIDASOA

► Maiatzaren 3tik 17ra  
Hitzaldi eta mahainguru desberdinak. Ikus 10. orrialdea.

### UDABERRIKO FERIA

#### ELIZONDO

► Apirilaren 28an Egitaraua Baztango berrietan, 23. orrialdean.

### ZINEMA

#### LEITZA

► Apirilaren 27an Adar-bakar, 40 ezetz eta Txotx laborume-traiak.  
► Apirilaren 28an Wallace & Gromit animaziozko filma eta Sarabe laborumetraia.  
► Apirilaren 29an Jone igo zerura luzemetraia.

### GAZTE TOPAGUNEA

#### KANBO

► Apirilaren 20, 21, 22an Lesakako Arrano, Saski Berri eta Kattun autobusean izena emateko tokiak. Beran, Errekalden eta Elizondon Intzan. Telefonoa: 948 627 597.

### KONTZERTUAK

#### SARA

► Apirilaren 30a Inguma, Kafka, Godzilla, Watcha, Hamlet taldeen kontzertua. Arratseko 9etan hasiko da.  
► Maiatzaren 13an Herri Urrats bezperako kontzertua: Kashbad, Dut, Ekintza, Saiberri... Txaranga eta Hendaia-ko Berlso eskolako bertsolariak ariko dira tartean.

## TELEBISTAKO TXOKOA

## BASERRIA



### OHARRA:

Aste Santuko oporrak direla eta **TTIPI-TTAPA** TELEBISTAK ere geldialdi ttiki bat egingen du, apirilaren 20, 21 eta 24an hain zuzen ere. Beraz, apirilaren 21ean ez da Herriz-herri saiorik izanen, baina lasai, 28an berriz ere itzuliko baita zuen pantailetara erreportai bitxiz beterik. Bertzalde, Maiatzaren 1ean ere ez da programaziorik izanen gure telebistan.



#### APIRILAREN 24TIK 28RA

	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	ORTZEGUNA	ORTZIRALA
11:00	.....	Berriak (errep.)	Berriak (errep.)	Berriak (errep.)	Berriak (errep.)
13:00	.....	Berriak (errep.)	Berriak (errep.)	Berriak (errep.)	Berriak (errep.)
17:00	.....	Berriak (errep.)	Berriak (errep.)	Berriak (errep.)	Berriak (errep.)
21:00	.....	Berriak	Berriak	Berriak	Berriak
					Herriz-herri

#### MAIATZAREN 1ETIK 5ERA

	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	
11:00	.....	Berriak (errep.)	Berriak (errep.)	
13:00	.....	Berriak (errep.)	Berriak (errep.)	
17:00	.....	Berriak (errep.)	Berriak (errep.)	
21:00	.....	Berriak	Berriak	



#### ❖ ZERRIKIA ❖

- **Zerrikumea** (20 kilokoa): 6.900 pta.
- **Zerri gizona** (95-100): 174 pta./kiloa.
- **Zerramak**: 100-105 pta./kiloa, bizirik.



#### ❖ BEHIKIA ❖

- **Aretze gizenak:**
  - **Idixkoak:** Pta./kg. Kanal  
Extra .....550  
1.koa .....530  
2.koa .....510
  - **Urruxak:** Pta./kg. Kanal  
Extra .....560  
1.koa .....540  
2.koa .....520
- Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urruxentzako.
- **Aretze ttikiak** (15 egun ingurukoak):
  - **Nabarrak:** urruxak 12.000 eta idixkoak 30.000 Pta.
  - **Mestizoak:** urruxak 30.000 eta idixkoak 45.000 Pta.
  - **Behi zaharrak:**  
Behi nabar gizona: 350 Pta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 380 Pta./Kg. Kanal.

DATU ITURRIA: EHNE-NAFARROA

### 👉 Liburuak



#### «Desira izoztuak»

ANA URKIZA

Elkarlanean

Hamalau istorio asmatu ditu ana Urkizak bere lehen liburuan. Pertsonen arteko sentimenduak, maitasuna, gorrotoa, bakardadea... jorratu ditu egileak ipuin hauetan. Guztietan ere, gizonezkoak eta emakumezkoak modu batean edo bertzean jokatzera eramaten dituen desirak aztertu ditu. Bitan banatu ditu Anak desira horiek: ezkutuko desiran kokatu ditu lehen sei kontaketa, eta ageriko desirak azaldu ditu

hurrengo zortzietan. Hainbat komunikabidetan lan egin eta literaturaren alorrean zenbait sari irabazi duen arren, hau da egile ondarrutar honek argitaratzen duen lehen liburua. Aldi berean, aipagarria da Elkarlaneaneko Literatura bildumako 200. alea osatzen duela honek. 1983an eman zitzaion hasiera bilduma honi, Sarrionaindiaren "Narrazioak" lanarekin hain zuzen.

# Nola gainditzten ahal dira abusu sexualak?

Ez dago dudarik abusu sexualen kontua oraindik ere tabua dela jende aunitzendako, batez ere abusuak familiaren baitan gertatzen direnean, bainan ezin dugu ahantzi, gaur egun, 17 urtez behetiko nesken %23ak eta mutilen %15ak jasaten dituztela.

Ume batek ahaide edo ezagun baten eskutik gisa honetako abusuak sufritzen dituztenean, ondorioak arront larriak dira, maitasuna eta eraso nahasten baitira, eta umeak zera pentsa dezake, maite duen pertsona batek hori egiten badio merezi duelako dela.

ZER GERTATZEN DA ORDUAN?

Haur hori gertatutakoaren errudun sentituko da, autoestimua jaustiko zaio eta lotsarengatik ez du gertatutakoa kontatuko. Luzera, umea heldu bihurtzen denean, ez da gai izan bertze sexuko pertsonekin harreman normalak edukitzeko. Bakardadearen beldurra soma dezake, depresioa, joera suizida, haserre,



Eraso sexualak jasaten dituen haurrak erruduntasun sentimentua garatzen du normalean.

isolamendua, alkohola eta drogen dependentsia eta jateko ohitura txarrak.

Sentimendu hauei aurre egiteko modu bakarra gertaera **modu argi eta ausartean salatzea** da, erruduntasuna eta lotsa alde batera uztea, errudun bakarra eraso egin duen pertsona baita eta jasan dituen biktima, inoiz ez alderantziz. Horregatik, ttikitant abusuak jasan dituzten guzietan gomendatzen diet **ez dezatela irentsi beren mina**, horretaz solas egin eta

laguntza espezializatua bila dezatela bakarrik egoera gainditzeko gauza ez badira.

*Osasunerako Emakume Elkarteak*, "Gure Artean" izeneko zentru bat du ttikitant gisa honetako esperientziak bizitu dituzte emakumeak atenditzeko prestatua. Informaziorako: **91 519 56 78** telefonoa, edo **www.nodo50.org/mujeresred/abusos.html** web orrian.

**RAKEL AMIGO**

BORTZIRIETAKO GIZARTE ZERBITZUA

# AGENDA EGUNEZ EGUN

## KONTZERTUAK

### DONEZTEBE

▶ Apirilak 21 «Jalisco Band». Arratseko 11etan Ameztia ostatuan.

### ELIZONDO

▶ Apirilaren 28an «Slurp». Arratseko 10etan Kasino ostatuan.

### BERA

▶ Apirilaren 21ean «Apurtu».

▶ Apirilaren 28an «Montoi».

▶ Maiatzaren 5ean «Jousilouli».

Arratseko 10,30etan, Pui ostatuan.

### OIARTZUN

▶ Apirilaren 20an «Soneros de Changuí» Cubatik (salsa).

▶ Apirilaren 21ean «Mikel Telleria eta Ibon Salaberria».

▶ Apirilaren 28an «DUT».

23etan, Pagoa aretoan.

## ERAKUSKETAK

### ETXALAR

▶ Aste Santurarte Herriko Ostatuan, Zentral Hidroelektrikoei buruzko margo erakusketa.

## GUARDIAKO BOTIKAK

112 Tfñora. deitu behar da

▶ Apirilaren 17tik 23ra Igantzi, Sunbilla Elizondo (Lezaun) eta Goizueta.

▶ Apirilaren 24tik 30era Arantza, Ituren, Elizondo (Iturralde) eta Goizueta.

▶ Maiatzaren 1etik 7ra Etxalar, Narbarte, Elizondo (Lezaun), Urdazubi, Leitza eta Goizueta.

## DISKAK



«Elektrizitatea»

ZEA MAYS

GOR DISKAK

Euskadi Gaztearen maketa lehiaketa irabazi zuelarik egin zen ezagun Zea Mays pop taldea. Geroztik telebistan, irrati eta hainbat kontzertu jotzen ikusi eta aditu ditugu. Asteburu honetan bertan disko berria aurkezten izan dira Lesako Atxaspi ostatuan. Lehendik bazuten bertze disko bat, eta "Elektrizitatea" izeneko hau duzte bigarrena. Hamalau abesti grabatu di-

tuzte, pop eta rockaren artean mugitzen direnak, eta Pearl Jam, Led Zeppelin edo Billy Corgan bezalako taldeen kutsua nabaritzen zaiela erraten ahal da.

Abesti bakoitzarekin giro bat edo atmosfera desberdin bat sortu nahi izan dute Zea Mays-ekoek, intentsitate aldaketa handiak tartekatuz eta Aioraren ahotsak protagonismoa inoiz galdu gabe.

Sail honetan iragarkia jartzeko 1.000 pezeta ordaindu behar da. ttipi-ttapa telebistan ere agertuko da (nahi izanez gero argazkiarekin).  
1.000 pezetak Rural Kutxako 3008 0080 53 0200015293 kontuan sartu eta justifikantea ttipi-ttapara igorri faxez edo postaz.

## ETXE BIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

## GARAJEAK / LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

## LURRAK / ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko

zein erraza den zure anuntzioa hemen jartzea...

Hegoaldetik deitzeko  
Iparraldetik 00-34-

948631188



...eta gainera, zure berri zonako etxe guzietan izanen dute!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. ttipi-ttapa ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

## ZERBITZUAK

- 201. Hargin/igeltseroak
- 202. Pintoreak

- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

## LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

- 401. Eskaintzak

## IRAKASKUNTZA

- 402. Akademiak
- 501. Salerosketak

## MOTORRA

- 502. Tailerrak
- 601. Emateko

## ANIMALIAK

- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak
- 701. Galdu / aurkituak

## DENETARIK

- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

## HARREMANAK

- 801. Agurrak

## ETXE BIZITZAK

### 101 SALDU

ADOS

- BERA. Bi pisu eta bi apartamentu salgai. Giltzak maiatzean emanen dira.

☎ 948 451 841  
607 978 656

GOIZUETA. Pisua salgai. 3 logela, egongela, sukaldia eta komuna. Garaje handia. ☎ 948 514 213.

BERA. Pisua salgai Legia karrikan. Garaje plaza badu. Aszensorea eta kalefakzioa. ☎ 948 631 081 (arratsaldeko 7etatik aitzinera).

IGANTZI. Herriko sarreran etxe adosatua salgai, bere lur-eremuarekin. ☎ 948 637 560 (19,30etatik aitzinera).

DONEZTEBE. Pisua salgai. 3 gela, 2 bainu, sukaldia eta jangela. ☎ 619 636 405.

## ETXE BIZITZAK

### 102 EROSI

ADOS

- Eskaera handia dagoenez, bordak, baserriak, lur-eremuak, bajeak etab. erosi nahi dira.

☎ 948 451 841  
607 978 656

## ETXE BIZITZAK

### 103 ERRENTAN EMAN

NARBARTE. Pisua emanen nuke errentan. ☎ 948 634 113.

## GARAJEAK/LOKALAK

### 109 ERRENTAN EMAN

BERA. Kanttonberri karrikan 100 m<sup>2</sup>ko lokala errentan emateko. Denda jartzeko prest. ☎ 689 232 666 (lñaki).

SARA. 800 m<sup>2</sup>ko gordelekua errentan emateko. Nahi diren m<sup>2</sup>ak alokatzen ahal dira: 400 pta m<sup>2</sup>a. ☎ 00 33 559 54 28 06.

BERA. Garaje itxia errentan emanen nuke Burga auzoan, Telefonica ondoan. 2 kotxerendako lekua badu. ☎ 948 631 033.

## LURRAK/ORUBEAK

### 112 SALDU

ADOS

IRURITA.  
- Lur eremu eraikigarria salgai.

☎ 948 451 841  
607 978 656

# KULTURKARI

publizitatea zerbitzuak

## KOMERTZIALAK

behar dira salmentan aritzeko

- ESKAINIKO DA:
- Lan kontratua
  - Soldata finkoa + komisioa
- BALORATUKO DA:
- Eskarmentua antzeko lanetan
  - Komunikaziorako gaitasuna eta harremanetarako trebezia
  - Eskualdean bizitzea
  - Ezinbestekoa autoa izatea

Interesatuak deitu **948 631188** telefonora

LEITZA. Borda eraikitzeko lur-eremua salgai. ☎ 649 476 615.

LESAKA. Elizaren gibelan lur-eremua salgai. Etxea egiteko modukoa. ☎ 948 637 183 (arratsetan).

## LANA

### 301 ESKARIAK

Neska euskaldun bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko edo haurrak eta helduak zaintzeko. ☎ 629 373 364.

## LANA

### 302 ESKAINTZAK

☎ 948 13 11 36  
**LODITASUNA?**  
96 pertsona behar ditugu pisu kontrolaren programa berri bat frogatzeko. Belarren bidez egingen da.

☎ 629 373 364  
**LODITASUNA?**  
96 pertsona behar ditugu pisu kontrolaren programa berri bat frogatzeko. Belarren bidez egingen da.

Langile bat behar da etxeko lanak egiteko igandetan eta udan. ☎ 948 630 734.

Erne! Hemen lanean hastekoa den telekomunikazio konpainia estatubatuar batek langileak behar ditu. ☎ 948 635 173 / 629 373 364.

Teiltatuak egiteko zurginak behar ditut. ☎ 608 194 638 edo 640 500 089 (Joxemari Zamora).

Bi sukaldari eta bi kamarero behar dira Iruñeko jatetxe batean. ☎ 948 637 050 (bulego orduetan).

Irungo jatetxe batean lan egiteko emakume zerbitzaria eta sukaldaria behar dira, 45 urte baino gehiagokoak. Berdin da esperientziarik ez izatea. ☎ 943 621 848.

## PUBLIZITATE AGENZIA

Diario de Navarra

garam

Noticias

COPE


EL DIARIO VASCO

COPE

informazioa:

☎ 948 63 11 88  
E-Posta: kulturkari@euskalnet.net

Zure  
publizitatea  
egunkari,  
irradi edo  
telebistetan  
agertzeko



# KULTURKARI

publizitatea zerbitzuak



## MOTORRA

### 501 SALEROSKETAK

**Skoda Felicia** salgai. OU-V matrikula, 13.000 kilometro. Urte bat du. € 948 630 799.

**Opel Kadett GSI 2.0i** salgai. 5 ate, xuria, SS-AB. Egoera onean. € 656 411 748.

**Renault Clio 1.8i** salgai. NA-AM. 60.000 km. Estrak. € 666 419 045.

**Seat 124** salgai. 18.000 km, beti garajejan kontua. 50.000 pta. € 948 450 103 (arratsaldetan).

**Renault 11** salgai. NA-P, ITV pasatu berria. 75.000 pta. € 948 450 490.

Aluminiozko **4 llanta** salgai. 5 makilekoak. 185/60 eta R-14. Merke. € 948 630 280 (13etatik 14etara).

**Puch Minicros** motoa salgai. Hagitz gutti erabilia eta prezio onean. € 948 631 499.

## MOTORRA

### 502 TAILERRAK

#### MENDAUR MOTOR

€ 948 450333 • DONEZTEBE

Bigarren eskuko kotxeak:

Terrano II, 306 D,  
Astra Caravan TD, 205 GT,  
Corsa D, Lada Niva, R-19 D.

SUZUKIAK ETA VITARAK AUKERAN



**BOAN  
TAILERRA**  
CITROEN Banatzailea

AUTO BERRIEN  
ERAKUSKETA ETA SALMENTA

€ 948 63 06 23 • BERA

## ANIMALIAK

### 601 OPARI EMATEKO

**Zakurkumeak** opari emanen nituzke, etxea zaintzeko egokiak. € 948 635 182.

## ANIMALIAK

### 602 SALEROSKETAK

Hiru urteko **aharia** salgai, mutur hori motza. € 948 630 244 (eguerdi eta gaue-tan).

**Grifon** eta **Sabueso frantziarrak** salgai, 2 hilabete-koak. € 948 387 098.

Cocker Ingeles eta Fox terrier **zakurkumeak** salgai. € 948 637 432 - 948 635 19.

## DENETARIK

### 702 SALEROSKETAK

Lakuntza-7 markako **egurrezko sukaldea** salgai. Egoera onean. € 948 637 885.

**Sukalde-kalefaktorea** salgai. Hergon markakoa, txuria. € 948 450 750.

**Husquvarna 272** motozerra salgai. 110.000 pezeta. € 948 637 461.

Kanpineko **karro-denda** salgai. Ranger markakoa, alemaniarra. Gurpil haundiak, autofrenoa, 1,40ko bi

ohatze, armairua, sala, abantzea... € 943 619 383.

Battle super 162-Menpakadora salgai. Egoera arrontonean. € 948 599 159.

Egurrezko **sukalde** belgiarra salgai. Handia, marroi handia. € 948 510 256.

# Bidali ttipi- ttapa herritik kanpo bizi diren lagun edo familiakoei

Bakar bakarrik bidaltze  
gastuak ordaindu behar dira.  
Eskatu informazioa.

☎ (+34) 948 631 188



# URTEBETETZEAK

Argazkiak berreskuratzeke, bidali sobrea zure helbidearekin.

## OHARRA:

Argazki bakoitzarekin batera 35 Ptako 15 seilu igorri behar duzue. Gainerakoan ez dira argitaratuko. Argazkia itzultzea nahi baduzue sobre bat eta helbidea bidali.



Imanol Juanikotena apirilaren 22an beteko ditu 7 urte. Zorionak familiaren partetik.



Begoña Tapia Altzuguren alkaigarrak 7 urte beteko ditu apirilaren 24an. Zorionak eta muxu handi bat denen partetik.



Aintzane eta Jone beratarrek apirilaren 10ean urteak bete dituzte. Aupa bikote. Zorionak eta ea zerbaitera konbidatzen gaituzten.



Ixiar Andueza Lanz beratarrek apirilaren 6an bete ditu urteak. Aupa eskiatzaile. Ea urtea ongi bukatzen duzun. Eneritz eta Ainhoa.



Zorionak nere bi salteroei! Ganixek urtea betetzear gain, zu eta atta amatxoren bizipoza zaretelako. Segi holako martxa ematen! Aupa zuek!



Ganix Arrutik apirilaren Sean urtea bete du. Zorionak eta besarkada handi bat amaxi, ataxi, atta, ama, Haizea eta Arritxuren partetik.



Lierni eta Naroa Tolosa Burlada bixki beratarrek 4 urte beteko dituzte apirilaren 22an. Zorionak eta muxu handi bana aita, ama eta Gorkaren partetik. Aupa pottokak!



Miguel Ostiz Gartxitorena doneztebarrak 8 urte bete ditu apirilaren 3an. Zorionak Anaren eta familiaren partetik.



Asier Apezetxea aranztarrak apirilaren 13an bete ditu 20 urte. Zorionak familiaren partetik.



Nerea Antizar Irazoki beratarrek apirilaren 19an beteko ditu 9 urte. Zorionak eta muxu handi bat Uxue, ama eta attaren partetik.



Mirian Sapuppo Galain doneztebarrak apirilaren 22an beteko ditu 3 urte. Zorionak familiaren partetik.



Ana Mari Teletxea Perurera elizondarrak urteak beteko ditu apirilaren 18an. Zorionak ama izan berriari, senar eta semearen partetik.



Josu Larretxea aranztarrak 11 urte bete ditu apirilaren 4an. Zorionak familiaren partetik.



Josu Larretxea aranztarrak 11 urte bete ditu apirilaren 4an. Zorionak aunitz maite zaituen baten partetik.



Nagore Fernandez Ruiz lesakarrak 4 urte beteko ditu apirilaren 23an. Zorionak osabazabea eta ataxi-amatxien partetik.



Julen Inda Zarranz doneztebarrak urtea beteko du apirilaren 19an. Zorionak aita, ama, laione eta zure familiaren partetik.



Olaia Salinas Indakoetxea lesakarrak 6 urte beteko ditu apirilaren 21ean. Zorionak gurasoen eta Igoneren partetik.



Mikel Campo Etxepeteleku iturendarrak 8 urte bete ditu apirilaren 13an. Zorionak familiaren partetik.



Zorionak Leitzako Joseba Galindori, apirilaren 17an urtea bete duelakoz. Musu handi bat Lesakako familiaren partetik.



Leitzako Joseba Galindo Leizak, apirilaren 17an bete du urtea. Zorionak eta muxu handi bat eta amren partetik.



Saioa Garbisu beratarrek 12 urte bete ditu apirilaren 17an. Zorionak ama, atta eta Mattinen partetik.



Aritz Ibarra beratarrek 3 urte beteko ditu apirilaren 24an. Zorionak familiaren partetik.



Fermin Mitxelena Mitxelena lesakarrak 26 urte bete ditu apirilaren 17an. Zorionak lagun kuadrila guziaren partetik.



Julen Palenzuela Etxepare lesakarrak 3 urte beteko ditu apirilaren 28an. Zorionak jaya, atta eta amaren partetik.



Unai Olaziregi Urkiola beratarrek apirilaren 29an beteko ditu 2 urte. Zorionak pottoko, familiaren partetik.



Agurne Mari-txalar Salaberri igantziarrak 10 urte beteko ditu apirilaren 29an. Zorionak eta hiru muxu Sara, atta eta amaren partetik.



Aritz Ibarra Dagerre beratarrek 3 urte beteko ditu apirilaren 24an. Zorionak Asier, Nagore, Oier, Xuban eta Ugaitzen partetik.



Alfonso Rey Martinez beratarrek apirilaren 23an 33 urte beteko ditu. Zorionak eta aunitz urtez, maratol-gizona.



Anastasia Errandonea Errandonea beratarrek apirilaren 20an beteko ditu urteak. Zorionak familiaren partetik.



Aritz Iturria Rozas beratarrek maiatzaren 2an beteko ditu Zorionak gurasoen eta anaiaren partetik.



Eneko Mauleon Salazar irundarrak 15 urte beteko ditu maiatzaren 3an. Zorionak familia guziaren partetik.



Zozoak beleari ipurbeltz! Manttangorririk eronei muxu erraldoi bana.



Xabier Sanzberro Telletxea etxalartarrak 3 urte beteko ditu maiatzaren 14an. Aunitz urtez familiaren partetik.



Jabier eta Markel Maia Sadaba lesakarrak apirilaren 26an eta 29an 5 eta 9 urte beteko dituzte. Aunitz urtez familiaren partetik.



Leire Organbide Elizagoienek maiatzaren 5ean 3 urte beteko ditu. Zorionak familiaren partetik eta 3 muxu.



Nerea Matxiñena Lasaga doneztebarrak apirilaren 25ean beteko ditu 6 urte. Zorionak eta muxu bat familiaren partetik.



Nerea Etxenike Errandonea arizkundarrak apirilaren 26an 5 urte beteko ditu. Zorionak familiaren partetik. Muxu handi bat.



Eneko Telletxea Iraola igantziarrak apirilaren 24an beteko ditu 7 urte. Aunitz urtez eta muxu bat Unai, atta eta amaren partetik.



Alex Abuin Yepes lesakarrak maiatzaren 1ean 8 urte beteko ditu. Zorionak Ander, Beñat, atta eta amaren partetik.



Nagore Fernandez Ruiz lesakarrak apirilaren 23an 4 urte beteko ditu. Zorionak ama eta attaren partetik.



Arantxa Sese Agara beratarrek maiatzaren 12an beteko ditu 2 urte. Zorionak eta muxu handi bat atta, ama eta Maddiren partetik.

**Norbait zoriondu nahi baduzu bidali bere argazkia, testua eta 35 pezetako 15 seilo TTIPI-TTAPAKO helbidera.**

**MUEBLES  
& METS**

Sarrera BERAtik da  
Alkaiagako industrialdean  
Sastrin karrika, 3.2 - 3.4  
31789 LESAKA  
Tfnoa. 948 630 537  
Fax. 948 631 443

4.000m<sup>2</sup>ko  
erakusketa  
mobleak ikusteko  
Larunbat arratsaldetan irekia



*Haritzez  
egindako  
altzari  
trinkoak*



**Almaco  
Baztan**

ETXEGINTZA ETA  
SANEAMENDU  
MATERIALAK

☎ 948 580 104 / 948 580 366  
**ELIZONDO**

e Zeramikak



e Tximeneak



e Velux-ak



e Erremintak

  
**BELLOTA**



# IRUGLAS

MARMOL, GRANITO ETA KRISTALEAN EGINDAKO LANAK



- ZURE SUKALDE EDO KOMUNAK HARROALDI BAT BEHAR BADU... ZURE SUKALDEKO GAINA KENDU ETA BERRIA JARRIKO DIZUGU
- MARMOL ETA GRANITO MOTA GUZIAK ZURE GUSTOKOENA HAUTA DEZAZUN

ERA GUZIETAKO  
**GRABATU  
ARTISTIKOAK**  
EGITEN DITUGU



- PAISAIK, ARMARRIAK ETA BERTZELAKOAK ISPILUETAN GRABATURIK
- KANPOSANIUKO LANAK ERE EGITEN DITUGU: PLAKAK, GURUTZEAK, HILETA ARTEA...

Eskatu  
aurrekontua  
loturarik gabe



**IRUGLAS SL**

Tel.: 948 637 412  
Fax: 948 637 800  
Frain auzoa • Igantzi